



uk

211. zenbakia / 2012ko martxoaren 28a

# URTERO 20€

**Urtero** UK aldizkariaren 20 zenbaki  
**Urtero** Uribe Kostan gertatzen denaren berri  
**Urtero** eskualdeko euskarazko aldizkari bakarra zure etxean  
**Urtero** argazki zahar eta barriak  
**Urtero** zure proiektuak lau haizetara  
**Urtero** 20 euro



www.ukaldizkaria.biz



neuk ere gura dot

Harpidetu eta jaso UK  
 zure etxean, hamabostero.  
 Urtero 20 euro.

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA UK 94 491 13 37 UK uk@aldizkaria.biz

**Dacia Sandero**  
 5.790€<sup>1</sup> tik hasita



**Dacia Duster**  
 10.400€<sup>2</sup> tik hasita



URTEBETEZ<sup>3</sup>  
 ASEGURUA DOAN

DACIA  
 GROUPE RENAULT



Dacia España



Dacia ESP

3 URTEZ<sup>4</sup>  
 BERMEA EDO  
 100.000 km

www.dacia.es

1.) Publikoarentzako Salmenta Prezioa, Penintsularako eta Balear uharteetarako, 2012ko martxoaren 31ra arte, partikular batek edo autonomo batek Sendero Base 1.2. 2 55 Kw (75cv) erosteko, Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatzuz gero. Horrez gain, 500€ ko beharpena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSA diruz lagundutako beharpena, finantziarioari lotua, Sendero gamako edozein ibilgailutan. 2.) Publikoarentzako Salmenta Prezioa, Penintsularako eta Balear uharteetarako, 2012ko martxoaren 31ra arte, partikular batek edo autonomo batek Duster Base 1.6 77kw (105CV) bat erosteko, Zergak barne, RCI Banque Sucursal en España finantzatzuz gero. Horrez gain, 1.000€ ko beharpena Publikoarentzako Salmenta Prezioan, finantziarioari lotua eta bateragarria doako aseguruarekin. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa 4.000€. RECSA diruz lagundutako beharpena, finantziarioari lotua, Duster gamako edozein ibilgailutan. 3.) Arrisku orotako aseguru, doakoa, lehenengo urtean, 300€ ko frankiziarekin 30 urteko gorako bezeroentzat, eta 600€ koa 30 urtekoentzat edo 30 urteko beharrentzat, MAPFRE konpainiarekin. Dacia gamako ibilgailu berri bat 2012ko martxoaren 31ra arte erosten duten partikularrentzat eta autonomoentzat, RCI Banque Sucursal en España (finantzatu beharreko gutxieneko: 4.000€), RCI Banque Sucursal en España oparituko aseguru. 4.) Aurreneko bi urteetako bermea, kilometro-mugarik gabe. Bigarren urteko aurrera, bermea amaituko da 2 baldintzetatik bat galdintzen denean. Irudietako modeloak: Duster Laureate 1.6 77 Kw eta Sandero Laureate 1.55Kw.

Dacia Sandero: Kontsumo mistoa (l/100Km) 4,0tik 7,3ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 104tik 169ra.  
 Dacia Duster: Kontsumo mistoa (l/100Km) 5,0tik 8,0ra. CO<sub>2</sub> isuria (gr/Km) 130tik 185era.



**BILBO BERRI** Jon Arrospeide, 20. Tel. 94 448 39 00. Devustu - Bilbo  
**LEIOA BERRI AUTO** Iparragirre Etorbidea, 24. Tel. 94 480 42 90. Leioa

## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte  
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337  
 ZUZENDARIA: Irantzu Sagarmínaga  
 ERREDAKZIOA: Zuberora Iturburu, Julen Nafarrate,  
 Nere Gijarubia, Irantzu Sagarmínaga  
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka  
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega  
 KOLABORATZAIKAK: Jorje Perez, Bittor Egurrola, Fredi Paia,  
 Armando Llamas, David Crestelo Kres, Algortako Bertsio Eskola  
 eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel  
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martínez (944 911 337)  
 FILMAZIOA: Laster Grafika S.L. / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799  
 © Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko  
 herri aldizkari eta euskara elkarteen  
 Topaguneko partaidea da

### ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

|   |   |
|---|---|
| <br>Getxo<br>UDALA - AYUNTAMIENTO<br>Euskara zerbitzua  |   |
| <br>Leioa<br>UDALA - AYUNTAMIENTO<br>Euskara Zerbitzua  | <br>BERMEOko<br>UDALA   |
| <br>Erandioko Udala   | <br>Sopelana<br>Udala   |
| <br>Urdulizko Udala   | <br>Plentziako Udala  |
| TRATU TXARRREN<br>BIKTIMAK ARTATZEKO<br>EUSKO JAURLARITZAREN<br>TELEFONO ZENBAKIA:<br>900 940 111     | Aldizkari honek<br>Eusko Jaurlaritzaren<br>Kultura Sailaren<br>dirulaguntza jaso du |
| <br>Bizkaiko Foru Aklundia<br>Diputación Foral de Bizkaia<br>Kultura Saila<br>Departamento de Cultura |   |

## Non zer

4. PLAZA.
5. IRUDIA. Marxoak 8ko bulder-txapelketa Leioan.
6. FACEGUK. Aste Santuko zein prozesiotan parte hartuko duzu?
7. LEHEN ETA ORAIN. Berango.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Hanane Lotfi.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Orduak eta erlojuak.
28. ARGAZKIA. Pascual Molongua Portu Zaharrean.
30. BERBETAN. Uribe Kostako Bilgune Feministako kideak.
34. FOTOGRAFIA. Sara de Diego.
40. SAKONEAN. Zamorako kartzelaldiko ekarpenak.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Angel Amigoren azken dokumentala.
43. MUSIKA. Musik-Herriaren agurra.
44. LIBURUAK. Egungo euskal ipuingintzaren historia, A. Ravelli.
45. KIROIAK. Christian Rodriguez.
46. ELKARRIZKETA. Luciana Davies eta Miriam Herbon.

### AMAITZEKO

49. PINTXOTAN. Txapiñoi-biribilkia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortarrak Gemikako Aberri Egunean, 1964.
54. AITORMENAK. Asier Hormaza.

Azala: Sara de Diego

www.ukaldizkaria.biz



30 Bilgune Feministakoak

### Berbetan

Uribe Kostako Bilgune Feministako  
 hainbat kidegaz berba egin ostean,  
 moreago ikusten da mundua.



11 Hanane Lotfi



54 Asier Hormaza

## aldizkaria etxean jaso gura baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena..... Deiturak.....  
 Kalea/zenb..... Herria.....  
 e-mail.....  
 Telefonoa..... Mugikorra.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  
 beste kopuru bat ..... euro

Kontu zenbakia (20 digito)

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa. 48991-Getxo uk@aldizkaria.biz tf. 94 491 13 37

**Armando Llamosas**

&gt; Arkeologoa

# Getxoko Murua baserria. Hau pena!

**Orain dela** gutxi baserriei buruzko artikulu bat agertu zen sail honetan. Mundu horren azken azarnek etorkizun latza zutela esan genuen. Kasualitatez, arratsalde eguzkitsua aprobetxatu dut Andra Marin paseatzeko. Han, horren adibide ezin hobea aurkitu dut: Murua baserria.

Duela urte asko ikusi nuen Murua baserria, ez nuen gogoratzen. Getxoko Andra Marin, lehen muino batean, orain kokapen eta inguru hori desitxuratuta dago, hainbeste eraikin artean. Halere, oraindik baserri-gunea gogorarazten digu, ohiko baserri-gunetik oso urrun egon arren. Arkitekturari dagokionez, baserri zaharretakoa da, XVI. mendekoa, ez da makala, gero aldaketa itzela pairatu arren. Garai hartan, baserriak eraikitzeke zura gai garrantzitsuenaren zen. Izan ere, baserria eusteko egitura nagusia zurezko ornoa zen, harritzko hormek ez zuten euste lanik egiten, egituraren zuloak estaltzen zituzten, besterik ez. Bigarren solairuan egurra eta adreiluak dira nagusi, bien artean armazoiak eratuz. Leihoak, ez handiak, zurezko armazoiaren hutsuneetan daude, denboran zehar horretan aldaketa handiak egon arren. Bere irudi nagusia, baserria definitzen duena, ataria da, gure kasuan zabal-zabala. Hemen islatzen dira bere bizitzako ezaugarri asko: ekonomia, gizarterlazioak, eguraldia eta lana. Indarra ere islatzen du, habe zabal eta gogorak mantentzen baitu ataria zein fatxada.

Edadez gain, gutxi balitz, baserriko teilarantz begiratuz gero, beste elementu aparta ikusiko dugu: jabaloiak eta tornapuntak. Oso polit dekoratuta daude, rolloak diamante-puntak, halako motiboak ikus ditzakegu. Gure baserrietan zur-lana oso ezaguna da, sari aurkitzen ditugu habeak edota alero landuak; batzuetan artisauren trebeek egindakoak, bestetan ez horren abilek. Kasu honetan, baserriaren aurrean aho bete hortz geratuko gara, Getxon bertan halako bitxia aurkitzeagatik.

Murua ezaguna da, Udaleko hirigintza-



sailak, Foru Aldundi eta Jaurlaritzako Kultura Sailek ezagutzen dute (denen katalogoetan dago). Bibliografian ere askotan agertzen da eta ikertzaileek noizean behin bisita egiten diote zer edo zer behatzeko. Hala eta guztiz ere, baztertuta dago, utzita eta hondakina ez bada, gertu dago. Herritarrentzat, ordea, ezezaguna da, gutxiengo batentzat izan ezik, gehiengoak gustura gozatuko duen arren.

Esanak esan, zerbaitek kale egiten duela

bistan dago, edo babes-sistemak, edo babesleek, edo kudeatzaileak, edo herritarrok, edo denak batera. Ondo legoke kalte horren kontzientzia hartuko bagenu, arazoa konpontzeko. Murua baserria hondoratuko da, eroriko da eta desagertuko da, bere zurezko lanarekin batera, bere geroa idatzita omen dago. Beste batzuk geratzen zaizkigu (gero eta gutxiago). Garaiz hartuko ahal dugu ondare-arazoaren kontzientzia? ○

## gu geu


### Usain barriak

Eurrerago ere jasoko duzue ondorengoaren barri, sakonago gainera. Halere, hastapen azalpenak hor doakizue: Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak eta bertoko bazkide diren 19 hedabidek (UK barne) TOKIKOM enpresa eratu dute. Eskoriatzan martxoaren 17an egindako batzarrean, 2009an hasitako bidean beste pauso bat izan da hori hedabideen etorkizunerako. Sasoi gaitzak dira hedabideontzat, eta eurrera egitekotan ezinbestekoa da alkarregaz jardutea.

Leihoak parez pare zabaldu ditugu udabarriko usainak barruraino sar daitezzen. Halere, usainen artetik, beste batek ere deitu du gure arreta: oporren lurrinak! Lurrin horri hainbat esentzia ezberdin nabari zaizkio, bakoitzak egoera batera garoa...

#### UK-ko lan-taldea

**\*OHARRA: Banaketa-sistema aldatu dugula-eta, hainbat arazo eta atzerapen jasan behar izan dituzue. Eragozpenak barkatzeko eskatu eta zuen pazientzia eskertu ostean, aurrerantzean ondo joango dela sinetsi gura dugu.**



LEIOAKO KIROLEBEGIA, MARTXOAK 8

**Climbing girl party!** Zoru bertikalean ibiltzea askoren zaletasuna da, argazkiari so egin besterik ez dugu behar horretaz jabetzeko. Emakume talde hau martxoaren 8an bildu zen Leioan, Sakonetako boulderrean; bertan Climbing Girl Party ospatu zuten. Bide bertikalean barrena Irati Anda eskalaztaile profesionalaren laguntza izan zuten; berak blokeen diseinua osatu baitzuen. Hamabi bloke guztira egin zituen Andak; batzuetan, irudimena erabiltzeko, bestetan, teknika zein indarra erabili behar izan zuten parte-hartzaileek haiek gainditzeko. Guztira 57 emakumek parte hartu zuten bertikaltasuna baino gehiago gainditzeko. ○

Auzokideen iritzia jakin gura duzu? Herrietan pil-pilean dauden gaiak, galdera umoretsuak, eztabaida sor ditzaketenak... Idatzi galdera **gure facebook**-en eta zeure partez luzatuko dugu!

# Aste Santuko zein prozesiotan parte hartuko duzu?



Santurtzi

**Inma Bringas**

> irakaslea

Ez dut parte hartuko prozesioetan, ni Teruel aldera joango naiz familiagaz. Han badago Dinopolis parke tematikoa, dinosauroei buruzkoa, ume txiki zein handientzat. Lau egun egongo gara han; parkea ikusi eta ingurua ezagutuko dugu: bertako gastronomia, lekuak, e.a.



Erandio

**Ane Madina**

> abokatua

Nire prozesioa izango da autoan sartuta egotea, izan ere, Galiziarra joango naiz. Espero dut auto gehiegi ez topatzea, baina Aste Santuan jende asko joaten da Santiagora. Saiatuko naiz prozesioetan ez parte hartzen, baina ikusi, ikusiko ditut, erromesak han ibiliko dira-eta.



Areeta

**Karmentxu Iturriaga**

> irakaslea

Iparraldera joango naiz kanpinen batera, bi ume ditut-eta. Urtero joaten gara Landetara, baina aurten aldatu dugu eta Miarritzera goaz. Eguziaren goizean urtengo gara etxetik eta, honenbestez, baliteke prozesioa autobidean topatzea, egun horietan auto-ilara handia sortzen baita bidean.



Gasteiz

**Joseba Bujanda**

> kirol-teknikaria

Egia esan, oraindik ez dakit zehazki zer plan izango dudan Aste Santurako, baina izan daiteke Done Jakueko bidea egitea, guztiz zehaztuta ez badago ere. Beraz, prozesioen bat egongo da, jende asko ibiltzen baita bidea egiten.



Romo

**Maite Martin**

> ikaslea

Nazareno izeneko kofradiako kide naiz eta prozesioetan parte hartzen dut martxoaren 29tik apirilaren 10era. Bilbon ateratzen gara eta egun bakoitzean ibilbide bat egiten dugu, goizez, arrastiz zein gauzez. Beste herrietako kofradiakideak etorriko dira eta festa egingo dugu.



Romo

**Irene Molina**

> ikaslea

Prozesioetan ez, baina asmoa daukat urteera bat egiteko oportunitatean; halere, oraindik ez dakit nora joango naizen. Aste eta erdi daukat oportunitate eta egun horiek aprobetxatu gura nituzke, baina prozesioak ez ditut oso gustuko.



## Iraganez doa denbora\* beti / BERANGO

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; kalatxoriak Ereagan



Ereaga, 2012ko otsaila

Testua: **Peru Vidal** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Iparragirre abila dela

Ereagako hondartza dugu  
gaur babes leku hurbila  
portu ondoko pasealeku  
bustia eta isila.  
Ipar haizeak zakar  
euri giroa dakar  
enbatak zer iskanbila,  
eta lurrera etorri gara  
babes pixka baten bila.

Pertsona horrek euritakoa  
bere eskutan hartu du,  
bi errepide alde banatan  
dauzkagu eta lagundu!  
Babes bila gentozen  
itsas aldetik zuzen  
eta zer aurkitu dugu?  
Lasaitasuna gura genuen  
baina ez gaude seguru.

Uretan gaude beti jolasten  
hegan egiten ederto,  
itsasoaren korrante eta  
haize boladen menpeko.  
Hemen ez dugu ezer,  
joan gaitezen laster!  
Gaude aspertu antzeko  
ia lasaitzen den egoera  
itsasora bueltatzeko.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz)

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner &amp; txosten kudeaketa + erreprografia



BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
[www.cianoplan.es](http://www.cianoplan.es)Illaro eta Sotoren bertsoakaz. Info+: [www.aek.org](http://www.aek.org)

## Esaera zaharren txapelketa &gt; izen-emotea

**Sopelako** AEK-k 19. biderrez antolatuko du aurten Esaera Zaharren Txapelketa, apirilaren 21ean. Izena emoteko epea zabalik egongo da apirilaren 16ra arte. Bertsoak eta atsotitzak alkarri lotuz egiten den txapelketa da; oraingo honetan, Arrate Illarok eta Julio Sotok botatzen dituzten bertsoak zein esarari dagozkion asmatzean datza kontua. Taldeka (16 urtetik gorako 2-4 kide arteko talde-

ak) parte hartzen da eta ekitaldiak saio bi ditu: lehenengo kanporaketa, goizean eta herrian; bigarrena, finala, Sopelako frontoian, herri-bazkariaren ostean. Izen-emoteak taldeko 10 euro balio du; bazkariak 15 euro pertsonako. Izen-emotea edo informaziorako: 618 574 445 / 695 774 015 zenbakietara deitu; edo [jose-p@aek.org](mailto:jose-p@aek.org) zein [aitor-f@aek.org](mailto:aitor-f@aek.org) helbideetara idatz dezakezu. ○

## Maskarada &gt; apirilean eta maiatzean

**Oztopo danen** gainetik, baten baino gehiagotan bertan behera utzi ostean, gozoz ahalegindu ostean, azkenean, lortu dute aurton Maskarada egitea. Xiberoko Ikastoletako Ikasle Ohien (XIO) ekimenez oholtzaratuko da ikuskizuna, eta bost herri eta bost data iragarri dituzte dagoneko: apirilaren 8an Hokin egingo dute, apirilaren 15ean Muskildi-Urdiñarben antzetzuko dute, apirilaren 22an Lexan-

tzün ikusteko aukera egongo da, apirilaren 29an Barkoxera hurreratzen denak maskaradaz gozatzeko beta izango du, maiatzaren 6an Gamere-Zihigara jo beharko dute interesa dutenek; eta aurreko hitzorduetara joaterik izan ez duenak, azkeneko parada izango du ikastolen Herri Urrats festan, maiatzaren 13an, izan ere, Senpereko antzirari buelta egingo diote eta maskaradarek. ○



Apirileko eta maiatzeko hainbat domekatan

Info+: [www.hatorhona.blogspot.com](http://www.hatorhona.blogspot.com)

## Hator Hona 2012 &gt; Argentinara "erakusteko"

**Necocheako** (Argentina) Euzko Etxea euskal etxeak orain zortzi bat urte martxan ipinitako egitasmoa da Hator Hona. Egitasmoaren helburua hau da: 18 eta 30 urte bitarteko eta euskara, euskal dantzak, euskal musika, gastronomia edo euskal kirolen inguruko ezagutzak dituzten gazte euskaldunak gonbidatzea horien barri emon eta erakuts dezaten beste herrialde batean; kasurako, Necochean.

Parte-hartzaileek, Necochearakinoko (Buenos Aires probintzia) bidaia ordaindu beharko dute, behin han izanik, ostatura (euskal etxean parte hartzen duen familia baten etxean) eta bazkaria antolatzaileen ekimenez jasoko dute. Aurton, egitasmoa, honenbestez, egonaldia, uztailearen 13tik abuztuaren 5era izango da. Ostera, parte hartzeko izena emoteko epea zabaik dago, apirilaren 20ra arte. ○

saiazgetaria

Roke Deuna 25  
20808 Getaria  
Gipuzkoa

...harria

...lehenengo garaiaik...

...itsasoa

[www.siazgetaria.com](http://www.siazgetaria.com) / [info@siazgetaria.com](mailto:info@siazgetaria.com) / Tf. (+34) 943 140 143



## KATALOGOA GETXOKO SALTOKIETAN

Katalogoan agertzen diren produktuak Getxoko saltoki hauetan aurki ditzakezue.

- AIBOA LIBURU-DENDA
- BOLIBAR ELORDUI LIBURU-DENDA
- COSAS LIBURU-DENDA
- ELO LIBURU-DENDA
- GAIK LIBURU-DENDA
- GOBELAURRE LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ITXAS-IKUS
- ITZIAR LIBURU-DENDA
- LA GUSANA LIBURU-DENDA
- LA REVISTA
- LAS ACACIAS LIBURU-DENDA
- LOPEZ LIBURU-DENDA
- MAYOR 29 LIBURU-DENDA
- NADAL LIBURU-DENDA
- NEGURI LIBURU-DENDA
- NORAY LIBURU-DENDA•PAPER-DENDA
- ORIXA LIBURU-DENDA
- SAN JOSE LIBURU-DENDA•TABAKO-DENDA
- S. JUAN NEPOMUCENO NAUTIKA LIBURU-DENDA
- TROA LIBURU-DENDA
- ZUGATZARTE LIBURU-DENDA

[www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org)  
[www.getxo.net](http://www.getxo.net)



“Badago emakume musulman eta arabiarrengana hurreratzeko burua prest ez duen jendea; informazio asko falta da”

### Hanane Lotfi > Schams elkarteko presidentea

**Ateak irekitzea.** Hori da Getxoko Schams elkartearen helburua: ateak ireki arabiar kultura lau haizetara zabaltzeko, eta kontrako norabidean ere, jatorri arabiarra duten herritarrei bestelako kulturak hurreratzeko. Hanane Lotfi da Schams-eko presidentea: “*El-kartearen izenaren esanahia ‘eki’ da; hala esaten da euskaraz, ezta?*”. Rabat-en jaiotakoa, Alemaniara joan zen ingeniari elektronikoa ikastera, eta bertan zortzi urtez egon ostean, Euskal Herrira etortzea erabaki zuen: “*Nire senarragaz oporretan etorri nintzen Bilbora, astebetez. Bera Libanokoa da, eta jatetxe bat ireki gura zuen. Bilbo hiri oso aproposa zen horretarako: gaztea, freskoa...*”. Getxon bizitzen hasi, eta hasieran integrazioa zaila egin zitzaion Hananeri: “*Badago emakume musulman eta arabiarrengana hurreratzeko burua prest ez duen jendea; informazio asko falta da*”. Beloaren kontua izan ohi da traba gehien sortzen duena: “*Beloagaz edo belo barik, berdinak gara. Pertsona barrutik begiratu behar dugu, eta ez kanpotik. Jantzera ezberdina izan arren, komunean gauza garrantzitsuagoak ditugu: arazo berberak, nortasuna, hezkuntza e.a.*”. Integrazioan urratsak emateko bidean, hainbat kulturatako emakumeentzat solasaldiak antolatzen dituzte: “*Ez du zentzurik arabiarrentzat bakarrik antolatzeak; gure artean ez gara integratuko, beste kulturakaz integratu behar dugu, eta beste kulturak, barriz, geugaz*”. ○ Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**

# Zaborra ere krisialdiak jota

Hondakin kopurua **%4,2 murriztu da 2011n** Getxon: **1.389.000 kilo hondakin gitxiago** sortu da; **birziklatzeko material-batzearen** datuak, barriz, **aurrekoen berdintsuak izan dira**

**2011n 1.389.000 kilo zabor gitxiago jaso da herrian, aurreko urteagaz alderatuta. Udalak krisiari leporatu dio hondakin jaitsiera. Kontrara, birziklapenerako gaikako material-bilketa bere horretan mantendu da.**



Getxoztar bakoitzak 14 kilo hondakin gitxiago sortu zuen iaz

**Krisialdi ospetsua** pentsatu bako eremuetan ere nabaritzen hasi ei da, berbarako, hondakinetan. Getxon, 2011n, aurreko urtean baino %4,2 hondakin gitxiago jaso zuten, hau da, 1.389.000 kilo gitxiago. Beste era batera esanda, getxoztar bakoitzak 14 kilo zabor gitxiago sortu zuen iaz. Udalak zuzenean lotu du hori egun bizi dugun krisialdiagaz.

2011n 31.329 tona hondakin sortu zen udalerrian, hondartzetakoa zenbatu barik: 2010ean baino 1.400 tona gitxiago. Udalak zabalduko datuen arabera, jasotakoaren %78,13 birziklatzen ez diren hondakinak dira, hau da, beren balorazio energetikoa egitera eroaten diren hondakinak: 24.678 tona.

Ostera, gainontzeko %21,87 birziklatzeko hondakinak izan ziren (papera, beira, ontziak, pilak, hondakin handiak, e.a.), hots, 6.650 tona inguru. Beraz, birziklapenerako gaikako material-bilketaren ehuneko aurreko urteko beretsua da, jaitsiera txikiak salbu: papera eta beira. Udalak uste du arrazoia dela material horiek gitxiago sortzen direla krisialditan. Horren harira, "krisialdia gehien igarri duen atala hondakin handiena izan da", Udalaren arabera: 366 tona batu zi-

tuzten iaz, aurreko urtean baino %19 gitxiago.

Bestalde, gorakada nabaria gertatu zen hainbat materialetan, izan ere, hainbat edukiontzi barri ipini zituzten eta material barriak biltzen hasi ziren: horiek

**"2011n 31.329 tona hondakin sortu zen Getxon; horietatik %21,87 izan ziren birziklatzeko materialak"**

dira ehun-gaiak (%5,44 gehiago batu da), eta hondakin elektriko eta elektronikoak (%6,97 gehiago).

Kilotan, honakoak dira birziklatutako materialen kopuruak 2011n: papera, 2.894.130; beira, 1.567.290; ontziak, 968.437; obra-hondakinak, 562.480; hondakin handiak, 366.120; ehun-gaiak,

265.847; hondakin elektriko eta elektronikoak, 20.560; eta pilak, 6.000.

Gaur egun, material desberdinak batzeko ehunka edukiontzi dago Getxon, ikus bestela: ontzietarako, 244 (edukiontzi urdina); beira jasotzeko, 187 (edukiontzi berdea); pilak batzeko, 174 (horietatik 155 saltoki eta ikastetxeetan, eta gainontzeko 19ak kalean); azkenik, 21 edukiontzi dago ehun-gaiak, jostailu eta elektrotresna txikiak batzeko (horiek eliza, ikastetxe edota osasun zentroetan kokatuta daude, besteak beste).

Bestalde, ostalaritzan beira jasotzeko edukiontzietan plastikozko poltsen barruan ez botatzeko dei egin du Udalak: "horrek edukiontziak hustu ondoren beira birziklatzea trabatzen baitu". ◊

## Zatoz euskaraz olgetan!

Sendik abiatu du Olgetan euskaraz programa



SENDI-k utzitako argazkia

**Hasi da Olgetan euskaraz** ekimena. Sendi proiektuaren baitan antolatzen du Egizu taldeak. Ekimena 3 eta 4 urteko umeei eta euren gurasoei zuzenduta dago eta doakoa da.

"Ume txikienakaz jolasteko eta kantatzeko gunea zergatik ez genuen sortzen proposatu ziguten. Euskaraz aritu gura dute guraso askok seme-alabakaz, hizkuntza-ohiturak aldatzen hasteko, baina, askotan, baliabideak faltan dituzte: umeakaz berba egiteko ume-hizkera, elkarrengaz ikasteko kantak, jolasak, e.a.". Hori dena aintzat hartu eta Olgetan euskaraz sortu zuten iaz Sendiko lagunek.

Aurten sei talde sortuko dute, batzuk Romoko eskolan eta besteak Algortako ikastetxe bitan. Martitzenetik eguenera garatuko da programa eta talde bakoitza

astean behin arituko da, 45 minutuz. Lauzpabost gurasorentzako lekua egongo da talde bakoitzean.

Algortan Zabala eskolan eta San Nikolas ikastolan egongo dira taldeak. Zabalan bi, martitzenetan eta eguenetan, 17:30etik 18:15era, eta San Nikolasen hiru, eguaztenetan 17:30etik 18:15era eta 18:30etik 19:15era, eta eguenetan 18:15etik 19:00etara. Romoko eskolan, barriz, talde bakarra egongo da, martitzenetan 17:30etik 18:15era.

Beraz, 3 edo 4 urteko umerik badaukazu (beste adinetakoak ere egon daitezke) eta haiekaz euskaraz jolastu eta kantatu gura baduzu Sendi proiektuko lagunak harremanetan ipini eta programan izena eman dezakezu: [www.egizu.org](http://www.egizu.org) edo 685 732 963. Segi euskaraz jolasten! ◊

## BERDINTASUN PLANARI BURUZKO ESKUORRIAK

Getxoko III. Berdintasun Plana jasotzen duten 2.000 eskuorri banatu dituzte asteotan. Besteak, beste, elkartetara, Jabekuntza Eskolako ikasleengana, liburutegietara eta BerdinSareko kideengana bideratu dituzte, honenbestez, horiengana jo dezakezu ale bat eskuratzeko. 2011-2014 tartean garatuko da plana eta herritarren parte-hartzagaz osatu da. Herrian berdintasuna bultzatzeko ekintzak proposatzen ditu, baita Udal barruan ere. Hainbat arlotarako neurriak zehazten ditu: hezkuntza, jendarteratzea, hirigintza, garraioak eta ingurugiroa, enplegua, kultura, kirola, komunikazioa, kooperazioa eta osasuna.

## BOLUEKO HEZEGUNEA ONERA EKARRI DUTE

Lan handia egin dute eta, azkenean, lehenera ekarri dute Bolueko hezegunea: biodibertsitatea zabaldu dute eta hobetu egin dute ingurugiro arloko hezkuntzarako ahalmena. Azken urteotako uholdeakaz asko sufritu du hezeguneko eta hilabetetako lanak egin dituzte gunea hobetzeko. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak 122.000 euro inbertitu dute lanotan.

## KE DETEKTAGAILUAK ETXEBIZITZETAN

Udalak ke detektagailuak ipiniko ditu herriko nagusien 505 etxebizitzetan; ekimenaren hirugarren faseari dagozkio. Zehazki, bakarrik bizi edo 65 urtetik gorako pertsonakaz bizi diren 81, 82 eta 83 urteko pertsonen eskainiko die aparailua Udalak. Helburua da "suteak eta kea prebenitzea, nagusien etxebizitzetan segurtasuna areagotzeko". Izan ere, etxean sute bat sortu edo arriskutsua izan daitekeen kea pilatuko balitz aparailuaren alarma piztuko litzateke. Udalaren arabera, zerbitzu honek "beraietzako eta senideentzako lasaitasun handia suposatzen du eta, era horretan, etxean denbora luzeago bizi ahal" izango dute.

Info: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

  
**Lorezaintza**  
zerbitzu orokorrak  
Tf. 656 754 243

Asociación de Amigos Algoriteños  
"Amumak"  
Asteazken poetikoak  
Itsas Fundazioa  
Euskara eta Algoritako Izenak  
Alzheimer, 3. Adina, Boluntarioak  
<http://www.algorta.org>  
<http://amumak.getxo.net>  
e-mail: [sotaventaster@gmail.com](mailto:sotaventaster@gmail.com)  
Móvil: 656773080


**Garaizar**  
barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Ileta kalea 1 • ALGORTA

**Euskal Herria eguna Algortan** > talde sustatzailea

“Algorta herria senidetuko bada, goazen herritar danok senidetzera!”



Ibarrako lagunek gonbidatu zituzten algortarrak izako jaialdira

**Irailaren 15ean izango da Euskal Herria eguna, aurten Algortan. Laugarrenez egingo da jaialdia eta, aurretik, Ibarra eta Lizarran egin izan dute. Hain zuzen ere, hiru herrien arteko senidetzea da ospatuko dena. Iraila urrun badago ere daborduko lanari ekin diote Algortan, ordurako hamaika ekimen prest eduki ahal izateko. Gura duten pertsona danek parte har dezakete jaiaren antolaketa: talde sustatzailea eguazteneko elkartzeko da Aldai patronatuan, 20:00etan. Gainera, bilera irekiak ere egiten hasi dira, informazioa zabaltzeko asmoz.**

—Lehenik eta behin, Euskal Herria eguna zer den azalduko zenukete?

—Ibarra, Lizarra eta Algorta herrien arteko senidetzea ospatzeko eguna da eta irailaren 15ean izango da aurten. Bai Euskal Herriari ekimenaren ideia izan zen eta helburua dauka Euskal Herriko lurraldetasuna sustatzea; horretarako, herrialde bakoitzetik herri bat senidetzen da. 2009an hasi zen dinamika eta Ibarra ospatu zen lehen Euskal Herria eguna: Ibarra eta Lizarra senidetu ziren urte hartan, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkari

gisa. Herria senidetzeagaz batera, saiatzen gara herrietako elkarte eta eragileen artean ere senidetzea: dantza taldeen artean, mendi taldeen artean, e.a. Urtean zehar hainbat ekimen gauzatzen dute elkarregaz eta, gainera, urtean behin egiten da Euskal Herria eguna jaialdia.

—Lizarran ere ospatu da, ezta?

—Bai, 2010ean. Herri biak elkartzeko ziren eta, 2011n, Algorta ere gonbidatu zuten Bizkaiko ordezkari moduan; orduan Ibarra ospatu zen eguna ostabere. Beraz, aurten guri egokitu zaigu jaialdia antola-

tzea. Herriko taldeak harremanetan gabiltza, ahalik eta eragile gehienakaz berba egin gura dugu, arlo guztietakoak: dantza, kirol, gazteria, hedabideak, e.a. Izan ere, arestian esan bezala, lurraldetasuna sustatzeaz gainera, harremanak

**«Asmoa da, noizbait, zazpi herrialdeetako herri ordezkariak senidetzea»**

lantzeko aukera polita eskaintzen du.

—Laugarren jaialdia izango da, beste herririk gonbidatuko duzue?

—Aurten ez, baina hurrengo urtera begira kontaktua egiten ari gara Lapurdiko herri batez. Azken finean, asmoa da egunen batean zazpi herrialdeetako ordezkariak senidetzea. Aurten helburua da Algortan ospatzea jaia eta herrira zabaltzea senidetzea; hau da, herria bera senidetu delako sentazioa zabaltzea. Ez dugu gura betiko lauren arteko kontua izatea, baizik eta herriaren erdigunea betetzea, jaia ahalik eta masiboan izatea.

—Oraindino oso goiz bada ere, zer egitarau mota aurreikusten duzue?

—Jai-giroa nagusituko da. Lehenik, kanpotik datozen herri biei harrera egingo diegu. Herrian hainbat gune muntatu gura dugu, eragileen ardurapean: euren dinamikak egingo dituzte. Ur-jolasen bat ere egiten saiatuko gara, gure herriko nortasunagaz lotuta. Herri-bazkaria, poteoa, animazioa, kontzertuak, e.a.

—Bloga ere martxan da, ezta?

—Bai, bertan topa daiteke informazio gehiago: [www.eheguna.net](http://www.eheguna.net). Eta gura dutenak parte har dezake antolaketa: eguazteneko batzen gara Aldai patronatuan, 20:00ak aldera. Algorta herria senidetzeko bada, gaozen danok senidetzera! ○

Info+: [www.eheguna.net](http://www.eheguna.net)

## Zinema umeentzat

**Aste Santuan zine-jardunaldiak egingo dituzte umeentzat: apirilaren 10etik 15era**



Aurten sei film proiektatuko dute, horietatik bakarra euskaraz: *Igelak eta zapoak*

**Ia 30 urte daramate** martxan Getxoko Kultur Etxeak antolatzen dituen Haur Zinema Jardunaldiek eta, aurten ere, ezin hutsik egin. XXIX. edizioa egingo dute apirilaren 10etik 15era eta Areetako Andres Isasi Musika Eskolan eskainiko dituzte umeentzako filmak. Honenbestez, umeen Aste Santuko oporraldia baliatuko dute jardunaldiak egiteko eta txikiengana kultura hurreratzeko.

Egun bakoitzeko pelikula bat emango dute, sei guztira; horien artean bakarra izango da euskaraz. Baina goazen egunez egun: apirilaren 10ean, martitzenean, jardunaldiak zabalduko ditu *Fucsia la mini-*

*bruja* filmak; biharamunean, hilaren 11n, barriz, *El gato con botas* emango dute; apirilaren 12a izango da euskarazko filmaren txanda eta *Igelak eta zapoak* proiektatuko dute.

Hilaren 13an, barikuan, ordea, *Los Muppets* pelikula emango dute; apirilaren 14an *Cascanueces* filma ikusi ahal da eta domekan, azkenik, *La gran aventura de Winter el delfin* pelikula itxiko ditu jardunaldiak.

Emanaldi danak hasiko dira arrastiko 17:00etan eta sarrera bakoitza 2,10 euro ordaindu behar da. ○

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## PROFESIONALENTZAKO ANTZERKI IKASKETAK

Profesionalentzako arloa eskainiko du Getxoko Antzerki Eskolak datorren ikasturteko aurrera eta, daborduko, izena eman daiteke 2012-2013rako. Ikasketek lau urte iraungo dute: formaziorako hiru erabiliko dira eta, laugarrenean, antzerki muntaia egin ahal dute ikasleek. Aktore profesional gisa formatu gura duten guztiek parte har dezakete. Sarrera-proba egiteko hitzordua eska daiteke: 94 430 31 94, [www.escueladeteatrodegetxo.com](http://www.escueladeteatrodegetxo.com) edota [info@escueladeteatrodegetxo.com](mailto:info@escueladeteatrodegetxo.com).

Info+: [www.escueladeteatrodegetxo.com](http://www.escueladeteatrodegetxo.com)

## UMEAK JOLASEAN ASTE SANTUKO OPORRETAN

Aste Santuko egunetan ondo pasatzeko aukera izango dute getxoztar umeek, doan, apirilaren 5etik 9ra, arrastiz; izan ere, *Jai egunetan, haurrak jolasean* programa egingo dute. Algortan Geltokia plazan izango da baina, euria egitekotan, Zabala eskolara aldatuko dute; Areetan, barriz, Eskoletako plazan garatuko dituzte ekintzak. Eguena eta barikuan, pailazoak eta dantzaldia izango dira. Zapatutik astelehenera, barriz, magia-ikuskizuna eta Ludotren jolasak egingo dituzte, eta DJa ere arituko da musika ipintzen (domekan Areetan eta astelehenean Algortan). Oraindino plan faltan zabilta?

Info+: [www.getxo.net](http://www.getxo.net)

## EUSKARAREN EGOERA MERKATARITZAN

Udalerriko merkataritza euskararen eguneroko erabilerrari buruzko azterketa soziolinguistikoa egiten ari da Udala. Helburua da merkataritza eta ostalaritza euskararen presentzia ezagutzeko, datuak eguneratzeko eta etorkizuneko aurrera eroan beharreko jarduerak zehazteko. Horretarako kontsumitzaileen ohiturei buruzko datuak bilduko dituzte: euskaraz jakiteak zein nolako eragina daukan erostera joaterakoan edo euskaraz artatu ahal izatea kalitate handiagoko komertzio hartzen den ala ez.

# lagusana

liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59  
(Tellagorri plaza)  
48991 ALGORTA  
Tf. 94 491 14 12  
[gusanalibreria@gmail.com](mailto:gusanalibreria@gmail.com)



# Pinosolorako ikerketa-batzordea

Kiroldegiaren proiektua ikertzeko batzordea eskatu dute oposizioko alderdiek; oraingoz, fakturarik ez du ordainduko Leioa Kirolak-ek

**Hamaika saltsa** dago azkenaldian Pinosolon egin gura duten kiroldegiaren inguruan. Leioa Kirolak sozietateak ez dio fakturarik ordainduko proiektua egin duen enpresari; hala erabaki zuen Administrazio Kontseiluak otsailaren 27ko bileran, PSE, PP, eta Bildu alderdien eskariz; Udaleko oposizioa osatzen dute talde horiek.

Beraz, momentuz ez dituzte ordainduko proiektua egiteko esleitu zuten enpresak eskatu dituen 1,6 milioi euroak, harik eta enpresa esleitzeko prozesuan irregulartasunik egon zen argitu bitartean; zehazki, Aldi Baterako Enpresa-elkartea da hura: Aros

**«Oposizioak gura du Leioa Kirolak sozietateak proiektua gelditzeko eska diezaiola LDEZ-ri»**

Estudio Arquitectura SA-Excavaciones Viuda de Sainz S.A. Ildo horretan, ikerketa batzordea osatzeko eskatu dute aipatu taldeek. Udaleko Osoko Bilkurari dagokio erabakitzeari batzordea eratu edo ez.

Horiek batera, taldeek ere eskatu zuten Administrazio Kontseiluaren hurrengo bilkuran ondokoa eztabaidatzeko: Leioa Kirolak sozietateak LDEZ-ri, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, eskatzea proiektua gelditzeko, "kontratua esleitzerako-



Pinosolon egin gura dute kiroldegi barria

*an irregulartasun larriak egon ziren susmoa* dutelako.

Azken asteotan hedabideek jaso duteenez, LDEZ-ren zigor-txostenaren arabera baliteke udal-lehiaketarako laguntza tekniko gaizatu zuen enpresak, Arcain Ingenieria Arquitectura S.L. enpresak, informazioa eman izana arestian aipatutako Aldi Baterako Enpresa-elkarteari.

Kiroldegi barria egiteko proiektua 59 milioi eurokoa da, honenbestez, prozesuan gardentasuna bermatu gura dute alderdiek.

Alkateak, bere aldetik, prozesua gardena izan dela defendatu du.

Balizko kiroldegi barriak hainbat zerbitzu eskainiko lituzke: estalitako igerilekuak eta bainuetxea, kanpoko eskalada-murrua, balio-anitzerako pabilioia, e.a. Baina herritar guztiak ez daude ados kiroldegi handi eta bakarraren ereduagaz, eta auzoetan banatutako kiroldegia deszentralizatzearen aldekoak dira, kirola auzoetara hurreratzeko. Ikusi beharko ikerketa ostean zer gertatuko den, gaiak luzerako joko duela ematen baitu. ○

## Gaztelekuko eskaintza

Apiriletik **ekainera** bitartean **hamaika jarduera** antolatu dute gazteentzat



Info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com) eta 944 055 850

**Aterpe Gaztegunek** egitarau barria prestatu du datozen hilabeteotarako. Apiriletik ekainera tailerrak, erakusketak eta bestelakoak antolatu dituzte 14 eta 35 urte bitarteko gazteentzat. Aldapabarrena kaleko 2.ean dago Aterpe.

Gaztegunean hainbat ikastarotan parte hartzeko aukera izango da, besteak beste: informatika (open office programa), perkusioa, argazkigintza digitala, euskal dantzak, perkusioa eta Leihosex programaren baitan prestatutakoak. Jarduerak 10 eta 40 euro artean ordaindu behar dituzu eta izena emateko hainbat modu daukazu: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com) eta [www.leioa.net](http://www.leioa.net) webguneak, 944 055 850 telefonoa eta [gazte@leioa.net](mailto:gazte@leioa.net) helbide

elektronikoaren bitartez egin dezakezu.

Gainera, eguenero lehiosex zerbitzua eskainiko dute Gaztelekuan, eta bestelako ekintzak ere izango dira: pop-rock lehiaketa eta San Juan jailetako kartel-erakusketak, margolari gazteen lehiaketa eta hauen kartel-erakusketa.

Bestalde, Gazteleku ekimenaren baitan, doako ekintzak prestatu dituzte eta gehienetan ez dago izena aurretik eman beharrik: scalextric, ginkana txikia, gazte collage, sukaldaritza eta hezkidetzta tailerrak edota mahai-futbol, eurocopa-play eta udako ping-pong txapelketak antolatu dituzte. Jardueren datak eta ordutegia topatuko dituzu Udaleko zein Kultur Leioako webguneetan. Ondo pasa! ○

## FAXISMOAREN AURKAKO MOZIOA AURKEZTU DUTE

Lau Haizetara Gogoan taldeak mozioa aurkeztu du Udalean sinbologia faxista kentzeko eta faxismoaren biktimak omentzeko. Horretarako, herriko biktimen errolda egitea proposatu du; Espainiako Gerra Zibilean hildako 23 pertsona aipatzen du mozioak. Lau Haizetara osatzen dute, besteak beste, honako elkarte eta taldeek: Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV), CNT, Sare Antifaxista, Durango 1936, Martxoak 3, Memoriaren Bideak, Oroitzu, Andoain 1936, Legazpi 1936 eta Genozidioaren Biktimen Elkarteak.

Info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

## LEHIAKETA BI ABIATU DU KULTUR LEIOAK

Apirilaren 26ra arte parte har daiteke Kultur Leioak eskuartean daukan lehiaketa bietan: San Juan jailetarako kartel-lehiaketa eta *Ni gaztea nintzenez...* kontakizun-lehiaketa. Lehenengoan, jaiak iragarriko dituen kartela aukeratu dute. Bigarren lehiaketa, barriz, literatura arlokoa da eta lau maila izango ditu, adinaren arabera banatuta. Gaia argi dago: ume zein gazte garaiko oroitzapenak. Euskaraz edo gaztelaniaz idatz daitezke, gehienez idazlan bi, eta ezin dira izan sei orri baino luzeagoak. Bina sari emango dute maila bakoitzeko, 250 eta 150 eurokoak. Lanak Kultur Leioan aurkeztu behar dira, norbera bertaratzu edo posta bidez (Jose Ramon Aketxe, 11).

Info+: [www.kulturleioa.com](http://www.kulturleioa.com)

## EMAKUM3AK-MUJER3S ERAKUSKETA, 8A ARTE

Kultur Leioako erakusketa-aretoan ikusgai dago *Emakum3ak- Mujer3s* erakusketa, datorren apirilaren 8ra arte. Taldeko erakusketa honek hiru artista bizkaitarren lanak batzen ditu: Nerea Andresen *Ellas* (argazkiak), Higinia Garayren *Lo que soñamos no es un paraíso* (ilustrazioak), eta Lide Kaltzadaren akrilikoak. Goza egizu!

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2  
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA

**BIZKAIA**  
irratia

**BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostar**

F.M. 102.6 Mhz

[www.bizkaiairratia.com](http://www.bizkaiairratia.com)



Aktualitatearen alde ezberdinak  
konbinatuko dizkizugu astero

ARGIA. Kalitatezko prentsa independentea

Jaso ezazu Euskal Herriko astekaria hilabetez **doan!**  
[sustapena@argia.com](mailto:sustapena@argia.com) · 943 37 15 45

## [erandio]

**Rith lasterketa Irlandan** > Berbotseko lagunek hartu zuten lekukoa martxoan

“Irlandan 15.000 lagunek daki gaelikoz, baina egunerokoan 2.000k baino ez du erabiltzen”

**Rith, Irlandako gaelikoz: Korrika.** Horixe bera da eta, gaelikoaren aldeko lasterketa, euskal Korrikaren antzekoa, baina Irlandan. Bigarrenez egin dute, martxoan izan da eta Berbots taldeko lagunak hara hurreratu ziren lekukoa hartzera.

—Korrikan parte hartu duzue martxoan, zelan da posible, aurten ez dago-eta Korrikarik Euskal Herrian?

—Korrika urte birik behin izaten da eta, gurean ez den horretan, Irlandan eta Britainian egiten dute. Orain urte bi egon ginen Britainian, eta aurten Irlandara hurreratu gara.

—Eta zelakoa da Irlandako Korrika?

—Hizkuntza gaelikoaren aldeko lasterketa da, Fundazio batek antolatzen du, 1.000 kilometro korritzen dute eta badaude aldeak gureagaz: eguneha bakarrik egiten dute lasterka, goizeko 09:00etan hasita. Hura gehiago da eskolen arteko ekimena, eta bakoitzak bere zatia bakarrik korritzen du. Martxoaren 8an ekin zioten lasterketari eta 17an amaitu zuten, Saint Patrick egunez, jaialdi handi batez. Iparraldean hasi eta Irlanda osoa zeharkatu zuen. Lehen, gaelikoaren aldeko aste bat egiten zuten eta, hori baliatuz eta euskal eredia kopiatuz,



Dublinen eroan zuten lekukoa Berbotsekoek, martxoaren 12an

Rith egiten hasi ziren duela urte bi.

—Hori da, esan daiteke euskal Korrika inportatu dutela?

—Hain zuzen, euskal Korrikaren ahizpa da Rith. Duela urte bi hemen egon ziren antolatzaileak eta gustuko izan zuten. Britainiara ere eroan zuten eta aurten bretoiaren aldeko hirugarren Korrika egingo dute han. Agian han garatuago dago Irlandan baino, izan ere, hurbiltasunagatik edo, Ipar Euskal Herriko AEK-gaz harreman handiagoa daukate.

—Zein egoeratan dago gaelikoa?

—Munduan milioi bi hiztun ei du gaelikoak, baina, Irlandan, 15.000 pertsona baino gutxiagok daki eta, egunerokoan erabili, 2.000k baino ez. Egoera oso eskasa da. Irakaskuntzan badago ikasterik, baina oso gutxi erabiltzen da. Horregatik egiten da Rith. Gure helburua izan da elkartasuna eta babesa adieraztea; horregatik joan gara, gure babesa senti dezaten eta hizkuntza gutxituen arteko elkartasuna gara dadin. ○

## Enekurin ere euskaraz!

Aurtengo **kanpomartxo** Enekuri auzoan egingo du Berbotsek **apirilaren lehenengoan**



Enekuri auzoa: eliza zaharra eta etxe barriak

**Konturatu orduko** joan da negua eta, daborduko, Kanpomartxo, euskararen aldeko jaia, ospatzeko garaia heldu da. Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatzen du eta apirilaren 1ean izango da aurten, Enekurin.

Erdigunetik nahiko aparte badago ere, Erandioko auzoa da Enekuri. Urtero auzo bat aukeratzen dute Kanpomartxo egiteko, bat ere ahaztu barik.

Ohiko legez, domeka goizean hasiko da jaialdia, dantzariakaz: euskal dantza erakustaldia egingo dute herriko taldeek 11:30ean. Horren ostean, Mendibaiarte abesbatzak kantatuko du eta ildo berean

jarraituko du goizak, bertsolariakaz; aurten Fredi eta Xabi Paya anaia algortarrak igoko dira taula gainera.

Herri-bazkaria 14:30ean hasiko da eta, gura izanez gero, zuk zeuk eroan dezakezu jana etxetik. Gainera, bazkaloste atsegina ere izango da Roberto eta Kepagaz: betiko euskal kantak abestuko dituzte, denek laguntzagaz. Bitartean, umeentzako erromeria eskainiko du Txanogorritxu rock musika taldeak. Eta lasai egon, helduek ere mugitu ahalko dute gorputza 18:00etatik aurrera, Luhartz erromeria taldeagaz. Egunean zehar ez dira faltako taloak, animazioa, jolasak, txosna eta giro aparta. ○

## IPUIN JAPONIARRAK EUSKARAZ

Bai bitxia hil honetako eskaintza Erandioko Kultur Etxeetan: Kamishibai umeentzako ipuin japoniarrak kontatuko dituzte Altzagan zein Astrabuduko liburutegietan. Altzagan, daborduko, egin dute emanaldia baina, Astrabuduan, martxoaren 28an izango da, 18:00etan. Ines Bengoak kontatuko ditu ipuinak. Kamishibai edo paperezko antzerkia, ipuinak kontatzeko Japonian erabiltzen den teknika da. Emanaldiotan 4 eta 9 urte bitarteko umei zuzendutako ipuinak taularako ditu Bengoak.

## LIBURUA UME ELEBIDUN GURASOENTZAKO

Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua argitaratu dute Alkaside Bizkaiko Euskara Zerbitzuen Bilguneak, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Aldundiak eta Bizkaiko hainbat Udalek, Erandio eta Getxo tartean. Gidan aipatzen denez, “*umeek hizkuntza bat baino gehiago ikas dezakete erraz-erraz, baina lanabesakaz gertatzen den moduan, hizkuntzak ere herdoildu egiten dira erabili ezean*”. Horregatik, gurasoen galderei erantzun gura die liburuxkak. Horretarako, galdera-erantzun formatua aukeratu dute aholkuak emateko, “*ume-guraso bikotea eta eleaniztasuna ardatz hartuta*”. Udal-erakinetan galdetuta eskura dezakezu.

## EUSKO JAURLARITZAKO TRAMITEAK ERANDION

Hemendik aurrera, Udalaren bitartez tramitatu ahalko dira Eusko Jaurlaritzako dokumentuak. Hau da, erandioztarrek Udalean aurkeztu ahalko dituzte Eusko Jaurlaritzari zuzendutako idazki eta jakinarazpenak. Izan ere, hitzarmena egin dute bi erakundeek “*elkarlana eta informazio trukea indartzeko*” helburuagaz. Herritarrek Udalera hurreratu eta idazkiak bertan aurkeztu besterik ez daukate; Udalak bideratuko dio ondoren dagokion Eusko Jaularitzarako sailari.



www.ukaldizkaria.biz

**EGUNKARIAK**  
prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero,  
etxera eroango dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
Tf. 94 491 27 34

## TURISMOAK GORA EGIN ZUEN 2011. URTEAN

Sasoian dago turismoa Sopelan! Iaz, inoiz baino bisitari gehiago jaso zituen herriak. Turismo Bulegoan eta Informazio Puntuak 17.000 kontsulta baino gehiago jaso zituzten (2010. urtean 13.000 izan ziren). Udan jaso zituzten kontsulta gehienak, abuztuan batez ere, eta turistek honako gaiez galdetu zuten nagusiki: hondartzak, Sopolbus zerbitzua eta natura-ibilbideak. Bisita gidatuen programak ere harrera oso ona izan du, Turismo Bulegoaren arabera.

## GOTZONE AGIRRE, OLERKI LEHIAKETAN IRABAZLE

Martxoaren 8an banatu zituen Itzartu Elkarteak ipuin labur, olerki eta pintura lehiaketa-sariak. Euskarazko olerkietan, Gotzone Agirrek eskuratu zituen sari biak. Gaztelarazkoen kasuan, Natalia Flores, Milagros Elorduy eta Alicia Prieto izan dira saridunak. Ipuin laburretan, barriz, Maria Belen Velez-ek irabazi du gaztelarazko kategorian, eta Ainhoa Etxebarriak akzesita euskarazko atalean. Pinturan, bestalde, Maite Jambina eta Paula Odriozola izan dira txapelidunak. Zorionak denei!

## LUIS AZUL QUARTET, POESIA ETA MUSIKA SAIOA

Olerkiak gustuko dituenak saio berezia izango du Kurtzio Kultur Etxean apirilaren 14an. Luis Azul Quartet taldeak poesia eta musika errezitaldia eskainiko du 20:00etan, hiru euroren truke. Bestalde, martxo akabuan eta apiril hasieran hiru pelikula ikusteko aukera egongo da: *Cars 2* martxoaren 25ean 18:00etan, *La boda de mi familia* martxoaren 29an 17:30etan eta *Harry Potter y las reliquias de la muerte II* apirilaren 15ean 18:00etan. Zinemaz gain, haur eta nagusientzako antzerkia ere izango da Kurtzion. Martxoaren 31n *Sin balas* antzezlan helduko da, 20:00etan, eta apirilaren 1ean umeentzako *Dinbi-danba* antzezlan, 18:00etan.

## Urte bi errota bizibarritzen

### Gazte Asanbladak **Sekeko Gaztetxearen II. urteurrena** ospatuko du martxoaren 31n



Entsegu lokal barria atondu barri dute herriko musika-taldeentzat

**Martxoaren** azken egunean Sekeko Gaztetxearen II. urteurrena ospatuko du Gazte Asanblada Sopoloztarrak. Urte bi baino gehiago igaro da gazteek errota okupatu zutenetik, eta tarte honetan ekimen ugari antolatu dute. Martxoaren 16an, berbarako, bertako musika-taldeentzat entsegu lokala inaurguratuko zuten.

Urtemuga ospatzeko egun osoko egitaraua prestatu dute. 11:00etan hasiko dira ospakizunak, udaletxe plazan. Bertan umeentzako txokoa izango da: puzgarriak, jolasak, txapak, e.a. 12:00-

etan, barriz, malabare-tailerra izango da, eta horren ostean, antzerkia, Yonunka konpainiaren eskutik. Ohiko legez, eguerdian herri-bazkariaren txanda helduko da. Txartelak alde aurretik eros daitezke Plaza Beltza Kulturunean edo gaztetxean bertan. Iaz bezala, bazkalostea laguntzeko Koblakari taldearen zirku ikuskizuna izango da. 18:00etan Maskarrada taldeagaz kalejira egingo dute gazteek, eta ordubete beranduago ekitaldia egingo da. Eguna birbiltzeko, Itziarren Semeak eta Rotabator taldeek kontzertua eskainiko dute. ○

**Carlota Jauregi** > Uribe Kostako III. Open Surf-ean, hirugarrena  
 “Uribe Kostan gero eta neska gehiago animatzen da taula gainera igotzera”



Peña Txuriko kideak txapelketa gehiagotan izena emateko asmoa du

**Arriatera** hondartzan ospatu zen martxoaren 10ean Uribe Kostako III. Open Surf Txapelketa. Kantauri isurialdeko surfari onenak batu ziren Sopelan, baina eskualdeko emakumeek indartsu daudela erakutsi zuten. Carlota Jauregi 16 urteko plentziarra dugu horren adibide.

—**Hirugarren lotu zara Open B atalean, zorionak!**

—Eskerrik asko, egia esan finala ez nuen oso ondo egin. Finalurrekoetan hobeto ibili nintzen, baina egun horretan olatu oso handi eta indartsuak zeuden, eta ez nintzen gehiegi ausartu... Baina beno, aurreneko hiruren artean nago eta poztekoa da.

—**Horretaz gain beste txapelketa batzuetan ere ibili zara, ezta?**

—Bai, Bizkaiko eta Euskadiko txapelketetan ibili naiz, 16 urtetik behar koentzakoetan. 2011n Bizkaiko txapela irabazi nuen, eta Euskadiko txapelketan hirugarren lotu nintzen.

—**Eta zer-nolako erronkak dituzu aurrera begira?**

—Hobetzen jarraitu nahi dut Aritza Saratxaga Peña Txuriko entrenatzailearen laguntzagaz; hori da nire helburu nagusia. Txapelketa gehiagotan izena emateko asmoa dut, eta bertan ahalik eta hoberen egiten saiatuko naiz! Etorkizunean Sopolako Pro-Junior-ean lehiatu gura nuke... Badakit zaila dela honetaz bizitzea, baina lortzen saiatuko naiz... bitartean ikasten jarraituko dut!

**«Iaz Bizkaiko Txapelketa irabazi nuen, 16 urtetik behar koen artean»**

—Uribe Kostan maila ederra dagoela erakusten ari zarete!

—Bai, gero eta neska gehiago animatzen da taula gainera igotzen! Eta ez bakarrik udan, neguan ere bai.

—**Eunate Agirre eredu izango duzue!**

—Bai, munduko txapelketa irabaztea, pentsa... ametsa da guretzat! ○

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
    - Maila guztiak
  - Ingelesa 3 urtetik aurrera
    - Talde txikiak
  - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.  
 Tf. 94 676 30 12  
 info@didakhamilton.com

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA  
 Tf. 94 676 02 66  
 Email.: sopela@ikastola.net

## OINUTSIK KONTSULTA PODOLOGIKOA

Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4  
 48600 Sopelana  
 Tf. 94 404 74 20  
 CITA PREVIA  
 oinutsik@euskaltel.net



**OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!**

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

**Etxeart**  
 Eraikuntza / Barrikuntzak  
 Zurezko Egiturak

Sagastikoetxe Industrialdea  
 Etxalde 2 - Pabiloi 11  
 48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346  
 Tel.: 946 773 144



http://www.etxeart.com

**Argiñe Vigiola, Garbiñe Uribe eta Rosa Mari Vigiola** > rally gidariak 70. hamarkadan

“Txantxetan legez hasi ginen rally-etan, eta azkenean Madrilen lehiatzen amaitu genuen”

**Badira bidea egin duten emakumeak. Zalantza barik, A. Vigiola, G. Uribe eta R. M. Vigiola berangoztarrak aitzindariak izan ziren. Frankismo bete-betean, bolante aurrean jarri eta rally gidari ibili ziren han eta hemen.**

—Istorio benetan harrigarria zuena; zelan hasi zineten rally-etan?

—1971. urtean hasi ginen, 1974. urtera arte. Eskutitza jaso genuen etxean, rally batera gonbidatzen gintuzten. Izan ere, ez zen batere ohikoa emakumeek gidatzeko baimena izatea, Berangon oso gutxi ginen karneta genuenak...

—Gonbidapena jaso, eta animatu zineten!

—Bai, txantxetan legez hasi ginen rally-etan. Lehenengora Garbiñeren senarraren 1500 auto bategaz joan ginen. Familia eta lagunak etortzen ziren gu ikusten. Apurka-apurka beste rally batzuetara aurkeztu eta hobetzen joan ginen. Morris kotxeagaz Madrilen ere lehiatu ginen.

—Txantxetan hasi eta Madrilen amaitu!

—Bai, 73. urtean joan ginen. Familia osoa joan ginen: senarra, umeak... Egun osoa behar izan genuen hara heltzeko, bidean galduta... Rally-a Jaramako Zirkuituan amaitzen zen, eta Morris-eko lehen saria irabazi genuen: 2000 pezeta.



Berangoztarrak inguruko aurreneko rally gidari emakumeak izan ziren

Espainiako Txapelketarako sailkatu ginen, baina ez ginen joan, [Garbiñe eta Rosa Mari] umedun lotu ginelako... Eta Rosa Mariri Morris-eko pilotu ofiziala izatea eskaini zioten, gainera.

—Eta Berangon jendeak zer esaten zizuen?

—[Garbiñe] Nire aitak zoraturta nengoe-la esaten zidan, kar-kar! Gizonak ez zeuden ohituta gu gidatzen ikusten, baina egia da gure senarrek asko animatu gin-

tuztela! Dena den, Berangon jendea ez zen asko enteratu, guk ez genuen asko kontatu ere...

—Eta ez zenuten abiadura horretan beldurrik pasatzen?

—Beldurrik ez, inoiz ere beldurra horrena! Behin susto bat izan genuen, Mungia bidean, trenbide bat pasatzean beste kotxe bategaz plaust jo genuenean. Abentura asko bizi izan ditugu... benetan ederto pasa dugu! ○

**Patxi Gale** > Gorlizko toponimia-mapa barriaren zuzendaria

“Ondare askok bezala, toponimiak ere babesa behar du”



XIX. mendean leku-izenek aldaketa ugari jasan zituzten

**Orain dela** gutxi Gorlizko toponimia mapa barria aurkeztu da. Egoitz Olabarieta eta Alain Romaña ikertzaileek proiektua egiteko beka eskuratu zuten, eta Patxi Gale lanaren zuzendaria izan da. Azken horregaz, hain zuzen ere, izan gara proiektuaren nondik-norakoak kontu diezazkigun.

—Zein izan da toponimia mapa egiteko helburu nagusia?

—Era horretako ekinbideen helburu nagusia gure kultur-ondarearen atala babestea da. Horrez gain, lanak euskal toponimiak arautzeko helburua ere badauka, eta, era berean garai batean erabiltzen ziren herriko leku-izenak gizarteratzea jendeak erabil ditzan.

—Azterketan zer-nolako berezitasun toponimikoa aurkitu duzue?

—Gorliz aldaketa oso handia pairatu du azken mende erdian. 1950 edo 1960 arte, Gorliz baserritar-herria zen, base-

rriz eta soroz betea. Adibidez, lehen famatuak ziren Gorlizko piperrak eta txakolina, eta gaur egun ea non aurkitzen duzun Gorlizen halakorik! Bizimodu tradizional hark lotura estua zuen toponimiagaz.

**«Gorliz baserritar-herria zen; gaur egun urriak dira soro eremuak»**

—Zelan bideratu duzue lana?

—Bi zutabe nagusiren gainean altxatzen da ikerketa: leku-izenen bilketa dokumentala, eta ahozko informazioaren jasoa. Era dokumental eta ahozko erabilera dira toponimiaren oinarriak.

—Herriko jendeak zelan hartu du?

—Jendeak harrera ona egin dio lanari; alde batetik, batzuek harridura ere erakutsi dute izenen idazkera arraroa iruditzen zaielako; baina oro har, badirudi herriak pozik hartu duela.○

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

Torre 2  
48990 ALGORTA  
94 491 12 71  
iratialgorta@gmail.com

*irati*

OPARIAK MODA GAZTEA

**COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.**

**Harrizko moduko kalitatea!**

- Garbiketa orokorra
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrial
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Elikagai Industriak igienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industriak garbitzea
- Lan osagarria

Andres Isasi 11, Behe ezkerre (Bilbo)  
Tf. 94 470 06 69 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

**Zure publizitatea hemen**

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

Tf. 94 491 13 37

publiuk@aldizkaria.biz

**AIXERROTA BHI**

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86

## PLENTZIAKO LUDOTEKAN ESKAINZA BEREZIA ASTE SANTUAN

Aste Santuan ekimenez betetako eskaintza antolatu dute Plentziako ludotekan. Ludotekaren ordutegia goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara izango da, eta 2001 eta 2008 urte bitartean jaio direnei, soilik, zuzendutako zerbitzua izango da.

## GORLIZKO LEHENENGO LORE ETA LANDARE AZOKA

Apirilaren 15ean, igandean, loreek eta landareek herriko kaleak hartuko dituzte; izan ere, egun horretan, Gorlizko I. Landare eta lore azoka izango da. Bertan, Gorlizko lore eta landare-saltzaileak ez ezik, beste lekuetatik etorritako landare-saltzaileak ere egongo dira. Azoka goizean goiz abiatuko dute Artzelu plazan.

## KUSTOMIZAZIO TAILERRA PLENTZIAN

Daborduko Plentzian kustomizazio tailerra martxan jarri dute, eta apirilean ere, aukera izango da tailer horietan parte hartzeko, apirilaren 2, 16, 23 eta 30ean, hain zuzen ere. Tailerrean izen-emateko epea martxoaren 30era arte egongo da. Ekimena irudimena lantzeko aitzakia ezinhobea da; hortaz, etxean erabili bako kamisetak, zapatilak edota prakak edukiz gero, eroan eta zure gustura jarri ahalko dituzu.

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf. 94 460 90 31  
48990 ALGORTA

## Urduliz

Urdulizko udalak gazteen **parte-hartzea** bultzatu gura du gaztelekuaren sorkuntzan



Gazteek gaztelekuaren ekimenak ez ezik ordutegia ere proposatuko dute

**Aurten** gaztelekua martxan jartzeko asmoa du Urdulizko Udalak; hori dela eta, Iritziak Batuz enpresaren bitartez, Udalak gazteen artean prozesu parte-hartzailea abiatu du. Prozesu horren bidez, gaztelekuaren inguruan gazteek dituzten iritziak eta balorazioak batu egin zen lehenengo bileran 40 gazteek parte hartu ei zuen; bertan, gazteek proposatu zituzten: bai egin gusra lituzketen ekimenak, bai horiek martxan jartzeko beharrezko ekipamendua. Ekarpenen artean, futbolina, bideo-jokoak, mahai-jokoak, dantza, eta musika proposamenak egin zituzten; horiek guztiak enpresak berak antolatutako tailer parte-hartzailearen bidez egin zituzten. Gainera, bilera hartan, gazteek gazteleku izango den eraikina ikusteko aukera ere izan zuten.

Gaztelekuaren erabiltzaileak 12 eta

16 urte bitarteko gazteak izango dira, eta adin horietakoak dira, hain zuzen ere, gaztelekuaren sorkuntzan parte hartzen ari direnak. Antza denez, gaztelekuak lau gela nagusi izango ditu; teknologiei eskainitako gelatxoak, horretan bideo-jokoak zein ordenagailuak egon-

## 12 eta 16 urte bitarteko gazteak izango dira gaztelekuko erabiltzaileak

go dira; bestalde, mahai-jokoetarako eta irakurtzeko beste gela bat. Hirugarren gelan, barriz, talde-jolasetarako lekua izango ei da, eta azkenik, badirudi, hainbat eratako ekintzei eskainitako laugarren gela sortuko dela. Gaztelekuaren kudeaketaren inguruan ez dago argibide handirik; halere, adierazi digutenez, ziur aski, gaztelekuaren kudeaketan aditua den enpresetako bat izango da kudeatzailea. ◻

# Mar. 28 - Api. 14

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tf. 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### LEIOA

▶ **Emakum3ak.** Apirilaren 8ra arte. Kultur Leioan.

### GETXO

▶ **Arte Ederretako ikasleen lanak.** Apirilaren 14ra arte. Algortako Kultur Etxean.  
▶ **Euskal akuarelarrien elkarte.** Apirilaren 29ra arte. Algortako Torre aretoan.

### PLENTZIA

▶ **EISE argazkiak.** Apirilaren 13ra arte. Goñi Portalan.

## MUSIKA

### ERANDIO

▶ **Musika eskolako ikasleen entzunaldia.** Martxoak 29 eta 30, 19:30ean. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.  
▶ **Luhartz.** Apirilak 1, domeka, 18:00etan. Enekuri auzoan.

### GETXO

▶ **Peter Abels (Getxon zuzenean).** Martxoak 29, eguena, 20:00etan. Algortako Satistegi Kafean. Doan.  
▶ **The Great Barrier (Getxon zuzenean).** Apirilak 12, eguena, 20:00etan. Algortako Ekin tabernan.

### BERANGO

▶ **Yoshie Sakai.** Martxoak 31, 19:00etan. Berango Antzokian. Doan.

### GORLIZ

▶ **Lirain abesbatza.** Apirilak 7, 19:00etan. Elizan.

### SOPELA

▶ **Luis Azul Quartet: musika eta poesia.** Apirilak 14, 20:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3 euro.



Matxura taldeak joko du apirilaren 14an

### ▶ Gaztetxeak

## Getxoko gaztetxearen urteurrena, 10etik 14ra

Sei urte beteko du eta ospatzera doa Getxoko Txorimalo gaztetxea. Apirilaren 10etik 14rako astea ekimenez bete dute. Martitzena 10ean, ekitaldia eta bideo-emanaldia izango dira. Eguaztena 11n, tailerrak egingo dituzte arrastian eta film-laburrak proiektatuko dituzte gauz. Eguena 12a, barriz, herrira aterako dute ospakizuna: umeentzako jarduerak egongo dira eta, gauz, gaztetxean, bertso-afaria; besteak beste, Fredi Paiak eta Xabier Silveirak kantatuko dute. Barikuan, apirilaren 13an, antzerkia eta kontzertua egingo dituzte eta zapatuan, tortilla txapelketa, herri-bazkaria eta kontzertuak: Norte Apache, Cuenta atras eta Matxurak joko dute; eta amaitzeko, DJa arituko da.

• **Non:** Getxon • **Noiz:** Apirilaren 10etik 14ra

## ANTZERKIA

### ERANDIO

▶ **Bakarrizketa: Juan Luis Hurtado.** Martxoak 31, 19:30ean. Astrabuduko Kultur Etxean. 3 euro.

### GETXO

▶ **Hil arte bizi.** Martxoak 31, 20:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 10 euro.

### SOPELA

▶ **Sin balas.** Martxoak 31, 20:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 6 euro.

▶ **Hipo eta Tomax.** Apirilak 1, 18:00etan. Kurtzio Kultur Etxean. 3€

### BERANGO

▶ **Poesia errezitaldia: Orphenica Lyra taldea.** Apirilak 14, 19:00etan. Berango Antzokian. 3 euro.

▶ **Lola (dantza-antzerkia).** Apirilak 15, 18:00etan. Berango Antzokian. 3€

## ZINEMA

### LEIOA

▶ **Aita, zontzia naiz.** Martxoak 31 eta apirilak 1, 17:30ean. Kultur Leioan. 3 euro.

### ERANDIO

▶ **Young adult.** Apirilak 1, 19:30ean. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean. 2 euro.

### URDULIZ

▶ **Aita, zontzia naiz.** Martxoak 31, 18:00etan. Kultur Etxean. 3 euro.

### GETXO

▶ **Aita, zontzia naiz.** Apirilak 1, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.  
▶ **Igelak eta zapoak.** Apirilak 12, 17:00etan. Areetako Andres Isasi Musika Eskolan. 2,10 euro.

## BESTEAK

### GORLIZ

▶ **Hitzaldia: Gorlizko toponimia-mapa.** Martxoak 29, 19:00etan. Teresianon.  
▶ **Gorlizko I. Lore eta landare Azoka.** Apirilak 15, 10:30etik 14:30era. Artzelu plazan. Erakusketa eta salmentaz gain, tailerrak eta txosna egongo dira.

### SOPELA

▶ **Solasaldia: Ametsen Hizkuntza.** Martxoak 28, 18:00etan. Itzartu taldearen lokalean.  
▶ **Sekeko gaztetxearen II. urteurrena.** Martxoak 31. Ekitaldiak egun osoan.

### ERANDIO

▶ **Kanpomartxo.** Apirilak 1, domeka. Enekuri auzoan: dantza erakustaldia, bertsolariak, erromeria, e.a.



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



# Lotu barik, darrai

Segundoz segundo, minutuz minutu eurrera egiten du. Gizakia, sarri, hura kontrolatzen saiatzen da; batzuetan, rurreratu; besteetan, ostera, atzeratu. Halere, saiakera antzua, hark guztiok menperatzen baikaitu. Etsipenetik urrun, askotan ere, hura irudikatzen saiatu gara; horregatik, bizitzaren lasterketan egunero eta arnas-zotinka, horrelako hainbati begiratzen diogu. Atzean lotzeko beldur ete?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





◀MIHEN LARREA AGIRREK UITZITAKO ARGAZKIA

## Pascual Molongua

Algortako Portu Zaharrean

Segur aski ezaguna zaizu irudi honetako protagonista: Pascual Molongua da, Bilboko Alde Zaharrean abestu ohi duen lagun ezagun eta maitatua. Argazki hau, ordea, ez zuten Bilbon egin, Algortako Portu Zaharrean baino, eta duela urte nahikorxo. Izan ere, Molongua 70eko hamarkadan iritsi zen gureira Ekuatore Gineatik eta, ziur asko, ordutikoa izango da irudia. Iritsi zenetik, gainera, Molonguak ez dio utzi abesteari: nork ez du entzun Benito Lertxundiaren kantaren bat bere ahots goxoa? Aita Arruperi buruzko musikalean ere parte hartu zuen, Louis Armstrong kantaria interpretatuz. Eskerrik asko kantu ederrok oparitzeagatik, Pascual, eta segi kantari urte askoan!

[berbetan]

Bilgune Feministak 10 urteko ibilaldia betetzen du aurten. Orain dela gitxi antolatu zituzten V. Topaketa Feministak Leitzaan. Emakumeen bizi eta lan-baldintza, eskubide, erronka, oztopo, aldarrikapenez berba egiteko Algortako eta Leioako Bilgune Feministako Ainhoa Mijangos, Nahia Rodriguez, Lur Moragues eta Maialen Galbarriartugaz bildu gara. Algortako taldea (Bulegoa: Martikoena 16 / bialgorta@gmail.com) orain 10 urte sortu zen eta Leioakoak (leioakobilgunefeminista@hotmail.com) urtea bete du. Egiteko mordoak dituzte, andana egiten dabilta eta hamaika egiteko ari dira; bil gatzazkie!

# Bilgunekoak

## Sasi guztien gainerik, gure bidean!

Testua: **I. Sagarminga** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Atzo; 10 urte ostean, gaur. Ibilbidea zelakoa izan da? Aurreratu bada, zertan? —Luzea! Gazi-goza! Erradiografia orokorra eginez gero, 10 urteotan kontzientzia feminista sortu, hedatu egin da, gehien bat emakume gazteengan, eta bilakera ere emon da. Emakumeok zapalduarik gaudela kontzienteago gara. Ostera, era berean, sentsazio txarra ere badugu; emakumeen egoera objektiboak, bai bizibaldintzei dagokienez, orokorrean, eskubideei dagokienez, atzera egin duelako. Orduan, kontzientzian aurrera egin bada ere, eskubideen arloan eta gure egoera objektiboan, atzera egin da. Esan daiteke, kontatuz gero, subjektu feminista gehiago daudela, bakoitzak bere eremutik eragin duelako, eta eragiten duelako.

—Askok ez du sinetsiko eskubideetan atzera egin dela, “Berdintasun faltsua” deritzon horregatik. Zelan aurre egin?

—Azken 10 urteotan, orokorrean, emakumeon eta gizonen, eskubideek, lanbaldintzek e.a. okerrera egin dute. Egia da, 80. hamarkadan, emakumeon eskubideetan zelanbait eurrera egin zela; gau-

za pila lortu zen, borrokaren bitartez. Baina, azken hamarkadan ez; atzera egin da. Bai orokorrean, baita “berdintasun faltsua” ideia horretan ere. Nahi erara irudikatzen dute, esanez: emakumeak enpresariak dira, emakumeak poliziak... Irudikatu gura dutena azaleko egoera da; baina zer berdintasun da hori? Emakumeak gizonen rolak hartzearena? Hori da benetako, nahi dugun, berdintasuna? Entzuten da: “eskubide berdina ditugu eta! Zertaz kezkatzen gara!?”; baina, betau-

**“Kontzientzia feminista hedatu egin da; baina, emakumeen bizi-baldintzei, eskubideei dagokienez atzera egin da”**

rreko moreak jantzita: publizitatea, lanbaldintzak, emakumeek gitxiago irabazten dutela, indarkeria, zaintza konturatzeko gara ez dela egia. Orain krisi garaian, nor bueltatu da etxera? Emakumea; zertara? Zaintzara, lan erreproduktiboa mantentzeko. Hori errealitatea da; eta instituzioetatik irudikatu nahi dugutena da: “beno, asko aurreratu dugu...” Halere,

pentasa liteke instituzioetan aitortzen eta onartzen dutela dana ez dela more kolorekoa, eta gabeziak badirela, baina... Gainera, berdintasunaren alde jardutea politikoki zuzena da! Modan daude berdintasun politikak! Hala, jendeak uste du horregaz dena eginda dagoela. Lantzen dituzten gabezia horiek, instituzioetan jorratzen dituzte zelanbaiteko defizientzia moduan, funtzionamenduaren akats legez; eta ez, benetan, direna legez: erroko arazo. Instituzioek bidaltzen duten

mezua oso zolia da; orduan, jendea agian ez da konturatzen, politikoki zuzena dela ikusten den heinean, ez da barne kritikarik egiten. Beste aldekoen erronka, aldarrikapen feministak agian nabarmenagoak, deigarriagoak izaten dira, kritikoagoak; beraz, eurek euren estrategia ondo lantzen dute, itxura feminista aurkeztuz, euren intereserako. Emakumea etxera





itzultzen ari da, etxeko lanak berhartzten, hori sistemarentzako onura da. Instituzioak gaurko sistemaren bermatzaile dira; sistema hori egitura patriarkala mantentzeko egina da. Instituzioek ez dute hori aldatuko duen eta beste eredu bat sortuko duen politikarik egingo. Partxetxo batzuk ipintzen dituzte egoerak horrenbeste odol isur ez dezan, “itxurakeria”... Baina, instituzioek ez dute errotik aldatuko egoera; ez dutelako nahi. Horren adibide oso ona hau da: gizonen eta emakumeen arteko soldatetan alde nabarmena da; legeek diote soldatan sexuen araberrako bereizketarik ezin dela egin, baina, gertatzen dena da beste kalifikazio batean ipintzen dutela emakumea. Lan bera egiten ari gara, baina gure kontratua ez da berdina. Legea jarri zuenak, tranpa jarri zuen! Bestalde, gure jardunean aurkitzen ditugun oztopoen inguruan, aipatu: oso zaila egin zaigula indarkeria kasu batzuei erantzutea. Instituzioetan, Leioan eta Getxon adibideak baditugu, ezkutatu direlako edo ez zaielako garrantzirik emon... Hori oso larria da! Salaketa jarri, eta halarre, gezurti deitzen bagaituzte... Mezu kontraesankorrak bidaltzen dituzte; bate-tik, esaten dute “*emakumea, edo gazteak-edo parte hartu behar dute, partehartzea oso garrantzitsua da...*”, bestetik, parte hartzean, subjektu bihurtzean, astindu egiten gaituzte. Hori, bai, puntu morea leiho, ate danetan ipinita dute!

—Euskal feminismoak badu bereizgarri-rik, ezta?

—Euskal Herriko emakumearen problema lantzen du. Etengabe barriztuz doa, Euskal Feminismoa ez da garai batean sortutako kontua eta bere horretan lotu dena. Ezaugarri nagusiak zapalkuntza hirukoitzak batzen dituenak dira, hori da, oro har, euskal feminismoaren, Bilgunek beregain harturik, duen bereizgarri nagusia. Nazio-klase-emakume zapalkuntza orain arte ez da landu. 10 urte hauetan Bilgunek feminismoa egiteko beste era bat sortu agian ez, baina beste mota bateko fe-

minismoa egin du, egiten ari da. Ezberdina. Lan-filosofia, oraindik, teoriatik praktikara eroateko asmatu eta lan egin behar dugu, baina sarean lan egitea da; hori ere bereizgarri da. Feminista den edozein emakumek lekua izatea, zapalkuntza hirukoitz horri aurre egiten bere burua ikusten duen edonork; antolatzeke modu ezberdina aktibatzea, bakoitzaren denboraren,

## “Berdintasunaren alde egotea politikoki zuzena da, modan da! Jendeak uste du horregaz dena eginda dagoela!”

egoeraren, eremuaren araberrakoak. Bakoitzak emon dezakeena emoteko emon dezakeen momentuetan... Ez bakarrik talde feminista batean antolatuta gaudelako, baizik eta lan egiten dugun eremuan, militatzen dugun eremuan, koadrilagaz e.a. Hainbat espaziotan zehar-lerrokotasuna zabaltzea. Feminismoa ez dela geldia, heresia; zabal delako, modu eta eremu ezberdinetan lantzen dela azaltzea... Danari ukitu morea emotea! Bidean danon artikulazioa behar da. Talde honen funtzioak izango dira bitartekoak sortu, komunikazioa artikulatu, espazioak eskaini e.a. baina, azkenean danok izango ginatete Bilgune Feministaren parte. Nahiz eta teoria izan, praktikarako pausoak emoten gabiltza. Hala lor daiteke errotiko eraldaketa!  
—Zapalketa hirukoitzaren aurrean, zein-

## “Gakoa: ‘Ez dago herri askerik, emakume aske barik’ eta aldaketak ezinbestean feminista izan behar du”

tzuk dira erronkak?

—Gakoa esaldi honetan dago: “Ez dago herri askerik, emakume aske barik”. Hortik abiatu behar dugu. Hiru zapalkuntzak barnebiltzen dituenak, harremanen eraldaketa, errotiko aldaketa da. Oraindik “oso birtuala” izan liteke, baina benetako aldaketa gura bada, gure baitako erlazio guz-

tiak eraldatu beharko genituzke; ez da lan erraza! Harreman eredu barriak eraiki behar ditugu; daudenak desegin, zapalkuntzan oinarritzen direlako.

—Euskal Herriak bizi duen aldaketa garaiotarako, Bilgunereren ekarpen da...?

—Martxoaren 8aren harira, Bilgunereren mezua hau izan da: aldaketa ezinbestean feminista izango da. Oso arin doa dana,

aldaketa piloa dago; eta horren guztiaren subjektu emakumeak ere bagara. Beraz, eraldaketa emongo bada, eraldaketak feminista izan behar du. Hori lotuta doa klase eraldaketagaz, eta herri eraldaketagaz; danek joan behar dute alkarri lotuta benetako herri askea sortzeko.

—Horretarako aukerak ikusten dituzue?

—Sinesten dugu, gero urteerak bilatu behar dira! Sinesten dugu, bestela ez ginatete hemen egongo! Norbait aukerak emotea etortzeko zain ez gara egongo; geuk sortu behar ditugu, horretara goaz!

—Gazte asko ei dabil mugimenduan...

—Badaude gu bezala kontzientzaturik dauden gazteak. Ostera, kontua oso polarizatua dagoela ikusten dugu, hau da: alde batetik, pozgarria da kontzientzia feministadun belaunaldi gazteagoak ikustea, bai-

na bestetik, indarkeria kasu asko gazteen artean gertatzen dira. Emakume gazteen gan “emakume-objektuarena” orokorrean zabaltzen ari den kontua da. Aipatutako bi polo oso bereizituakaz lotuta dago; multzoetako batean nabarmentzen ari den kontua da, objektu izatearen, “ez dakit no-ren”-neska izatearena eta... Ostera, beste

multzoan ez dago; adib.: Gazte Mugimendua inoiz baino feministagoa dela ikusi dugu; oso pozgarria! Feminismoa zuzenean jorratzen dutenez gain, besteetan ere kontzientzia hori hedatzen ari delako...

—Gazte asanbladan, Martxoaren 8rako emakumeentzako bazkaria prestatzekotan zabilzate; gizon militantekideek, urtero legez, joan ahalko diren galdetzen dute...

—Ez da erosoa, askotan gertatzen da; guz-

## “(...) gazte-bazkaria zergatik den gazteentzat bakarrik ez da zalantzan jartzen; emakumeena sarri askotan!”

tiz erreala da. Emakumeentzako espazioa sortzen dugun bakoitzean ia, norbait kanpo sentitzen da; eta zalantzan ipintzen da espazio horren legitimitatea, gainera. Gazte-politika, gazte-mugimendua gazteek definitzen dute; bada, emakumeon borroka emakumeek definituko dugu. Geu gara subjektu, geuk definituko dugu, ostera, horrek ez du esan nahi gizonetakoek ez dutela parte hartu behar borroka honetan, parte hartu behar dute. Esaterako: 40-50 urte badituzu ez zara gazte asanbladan ibiliko; 20 urtegeaz ez zara jubilatuen batzordean egongo; lana baduzu ez zaude langa-

betuenenean... Galdetu duenari: parte hartuko zenuke horietan? Bada, emakumeentzako antolatu gura dugun honetan zure burua ikusten duzu? Horrek ez du esan gura kanpo sentitu behar dutenik...

—Esan dezakete: “*gu ere berdintasunaren alde, zuek gazte gaude honetan...*”

—Ados! Oso garrantzitsua da. Guk nahi duguna da gure gizarte hau emakumeen bazkaririk egin behar ez liratekeen mo-

mentura iristea. Argi lotu behar du, hori da gure helburua; behar hori izango ez dugun egunean arazoa gaudituta dagoelako izango da. Gure helburua ez delako gizartetik zokoratzea, ezta beste %50egaz inolako harremanik ez izatea ere. Batzuetan gertatzen da erabakitzen dutela antolaketan ez parte hartzea, eta hori ez da kontua; oso garrantzitsua da eurek ere borroka honetan parte hartzea, baina beste modu horretan. Halako kontuetan ez lukete espazio hori haiek kanpo uzten dituen eremu legez ikusi behar, baizik eta kolektibo bezala erabaki dugun antolatzeke eremu bezala. Ez

dugu inoiz ikusi, oro har, bestelako kolektibo bati antolatzeke modua zalantzan ipini izatea; hau da, inoiz ez da zalantzan jarri gazte-bazkaria zergatik den gazteentzako bakarrik e.a. Ez da zalantzan jartzen kolektibo legez onaturik dagoelako, bada gu ere kolektibo gara, gure horretan antolatu gura dugu. Eta gure artean antolatzeak ez du esan nahi gizonakaz eta gizon feministakaz lanik ez egitea. Garena, egiten duguna eta antolatzeke modua gehiegitan ipintzen dute zalantzan! Ahaztu barik, atzean, gako nagusietako bat dela: emakumea subjektu politiko izateko eta onartzeke kontua; geu ere herri honetan subjektu politiko gara, hori aitortzea da gakoa.

—V. Topaketak egin dituzue oraintsu, zein ondorio atera dituzue?

—Aurrera begira zertan jardun, zeri errepertatu behar diogun oinarriak jarri dira. Oro har, labur-labur, hauek: emakumeak subjektu politiko izatea, aitortzea, eta horren bidean emakumeen eskubideen aitortza legoke; hori da lehenetana. Horretarako, kontzientziazio lana; zapalkuntzei aurre eginez bide horretan aurrera egitea, eskubide horiek eraikitzen joanez. Behin eskubideen aitortza lorturik legokeenean, plan estrategikoa definitzea egin eta praktikan ipintzeke indarrak biltzea. ○

## Mugimendu feminista Uribe Kostan

—Zein egoera bizi du mugimendua?

—Esan daiteke osasuntsu dagoela orain. Algortan, orain urte bi oso indartsu ibili ginen, gero nahiko ahultxu egon garen denboralditxo izan genuen, baina orain dela urte batetik hona indartuta nabaritzen dut. Algortan eta Leioan Bilgune dago, Romon Itzabalzetako Emakume Asanblada nahiko indartsu dabil, Erandion ere badabil-tza... Ondoko herrietan mugimendu feministak egoteak bultzada emoten digu. Topaketetan ere hori sentitu genuen, 500 emakume baino gehiago batzeak jarraitzeke indarra, gogoa emo-

ten digu, konturatzen garelako ez gara gu bakarrik, gure herrian, hare-ale bakarra... Ikusi egiten dugu, Euskal Herriko ez dakit zenbat lekutan ari da lantzen feminismoa... Eta Uribe Kostan, gitxinaka-gitxinaka, baina eurrera doala esan daiteke.

—Beste andre taldeakaz zelan kontzentzen zarete?

—Algortan, esaterako, harreman hori berhartu behar dugu, nahiko etenda daukagu. Leioan, berbarako, badugu. Baina, egia da, helburuak ezberdinak direla, hau da, Bilgunek dituenak edo emakume elkarte batek izan ditzakee-


nak. Baina, azken finean, aliantzen kontua dago hor, eta ekimen jakinetarako batu beharko genuke, eta bata beste-ari ekarpenak egin diezazkiokegu. Nahiz eta helburu ezberdinak izan, emakume subjektu izatea lantzen dugu danek; beraz, emakume-taldeen arteko aliantza kontua da hori. Adib.: Emakumeen Mundu Martxarako harremanetan egon ginen, lanketa egin genuen... Horrelako gauzetarako, oinarrikoagoak direnak edo komunagoak zaizkigunak, batera lan egiten da; beharrezkoa litzateke, horretarako aukerak badaude. Eta garrantzitsua da.




## Zer gara?

Sara de Diego sopeloztarrak Arte Ederrak ikasi zituen eta, gaur egun, argazkilaritza ikasten dabil Gasteizen. Hainbat lanetako irudiak ekarri dizkigu orriotara, baina guztiek daukate zerikusia nortasunagaz. Portadako argazkian, barbarako, hatz-markak proiektatu ditu gorputzen gainean, “*azken finean, horiek baitira identifikatzen gaituztenak*”; erretratuak ere “*nortasun puskak*” dira, “*sexuen arteko berdintasun-desberdintzari buruz hausnartzeko*”; eta gorputzen argazkiak ere ildo berean koka daitezke: irudi gehiago erakusgai dauzka de Diegok Gasteizko Ignacio Aldekoa aretoan, apirilaren 29ra arte.

Argazkiak: **Sara de Diego**








**Zamorako apaiz-kartzela** > Frankismoaren lekaideen kaiola

## Atzoko garai ilunen disidente elizkoiak: abade euskaldunak

**Konkordatu kartzelan gatibu egon ziren apaizek garai hura oroitu, eta Zamorako apaiz-kartzela liburua idatzi eta argitaratu barri dute. Sopelan, orain dela gutxi, liburua-aren aurkezpena egin zuten; bertan Nikola Telleria, garai hartako Sopelako parrokoa, eta gatibu egondakoa, gogoratu zuten.**



Liburua plazaratu dute

**Liburua** irakurri eta frankismo garaira itzultzen gara; bertan, gure herriak bizi zuen errepresioa eta zampaketa agerian geratzen baitira. Izan ere, ugari izan ziren estatuaren errepresioa zein zampaketa bortitza pairatu behar izan zutenak. Batzuetan, euren delitu bakarra, erregimena kritikatzeko baino ez zen izan; beste batzuetan, ostera, Euskal Herriko nazio izaera aldarrikatzea, edo euskararen aldeko hitzak haizatzeko. Hori nahikoa zen erregi-

menaren babesleak haserretu, eta edozein gatibu har zezaten. Zampaketa horren lekuko izan ziren, besteak beste, euskal abadeak. Hala, behin baino gehiagotan,

eurek eliza katolikoaren laguntasuna diktadurarekiko gogor salatu zuten, baita estatuko indarrek atxilotuak erabilitako

### 1964an lehenengo apaiza espetxeratu zuten sermoiatatik

tortura ere. Zalantza barik, apaizek ere garai hartakoa aldaketaren aldeko gizarte uholdeagaz bat egin zuten. Eta eurek jasandako ondorioa ere, beste askok izandako bera izan zen: gatibu hartzea alegia. Mikel Elustondo abadeari egokitu zitzaion abadeen artean lehen atxilotua izatea; 1964an, hain zuzen. Elustondok garai hartan emandako sermoian gazte batzuen atxilotetak salatu zituen baita gazteek jasandako torturak ere. Horrela,



Zamorako kartzelan abadeak baino ez zeuden

sermoi hura zela medio, sei hilabeteko kondena jarri, eta hamar bat mila pezetako isuna ordaindu behar izan zuen. Hasieran, Palentziako komentuan sartu bazuten ere, hilabete batzuetara Zamorako espetxera eroan zuten; ondoren, Konkordatu kartzela bezala ezagun izango zenera. Elustondo lehena izan zen,

baina ez azkena, Konkordatu kartzelan hainbat apaiz euskaldun egon baitzen: guztira 40; 31 bizkaitar eta 9 gipuzkoar.

#### Sopelako parrokoa

Zerrenda luze horretan topatzen dugu garai hartan Sopelako parroko zen Nikola Telleria. Horrek, beste lau abade-

gaz batera, 1969ko maiatzaren 30ean gose-grebari ekin zion. Greba egiteaz gain, agiri bat zabaldu zuten torturaren eta salbuespen-egoeraren aurka; dokumentu horretan abadeek estatua terrorizatzen jotzen zuten. Horren ondorioz, hamar eta hamabi urteko zigorra ezarri zuten tribunal militar batek euretako bakoitzari. Une horretan tentsio nabarmena zegoen gizartean; atxiloketa ugari, hilketak... Kartzelan zegoenean, sarritan, Telleriak urdaileko minak, bihotzerreak,

### Konkordatu kartzelan 40 abade euskaldun egon ziren

zein beste gaitz batzuk izaten zituen. Mina zela-eta, lau urte geroago Carabanchelgo espetxeko erizaindegira eroan zuten. Medikuek minbizia zeukala esan zioten, gaixotasuna kontuan hartuta, kartzelatik atera zuten. Halere, jada minbiziak jota zegoen, eta hil gutxira, zendu zen. Nikolaren istorioa ez ezik, urte horietan egondako abade askoren bizipen gogorak ere batu dituzte *Zamorako apaiz-kartzela* liburuan. ○

**Bene eta Bitori Markaida** > Telleriaren herrikideak

“Garai hartan abadeen laguntza barik, ezin izan genukeen euskararen alde ezer egin”

Markaidatar ahaizpek aski ondo gogoratzen dute Nikola Telleria, eurek deitzen duten bezala, Don Nikolas. Horregatik, haiekaz egon gara euren oroitzapenak gurekin parteka ditzaten, horrela, Nikola parrokoa hurbiletik ezagutu dezagun.

—Nolakoa zen Don Nikolas parrokoa? —Hasiera batean, 1948 inguruan Nabarnizetik (Gernika) etorri zenean ez zuen harrera ona izan herrian, aurreko parrokoarekin esperientzia txarra egon

zelako herrian, eta jendea oso mesfidati zegoen. Poliki-poliki Don Nikolas herri-tarrak ezagutzen hasi zen, eta horretarako, medikuarekin batera kontsultetara joaten hasi zen. Horrela, herri-tarrak ezagutu zituen baita lagundu ere. Bera heldu berria zen, baina denbora gutxira liburutegi bat antolatu zuen elizan, umeei irakur dezaten. Don Nikolas dotorea, bizkorra, jenio bizikoa zen. Zalantza barik, abade zorrotza zen.

—Noiz hasi zen, eta zergatik hasi zen euskalgintzan?

—Lehenengo eta behin, herrian, umeentzako lehenengo dantza taldea sortu zen, horren ostean, gazteok hasi ginen izaera sakonago zuen taldea sortzen, eta gazte batzuk Don Nikolasengana hurbildu ziren taldea sortzeko. Horrela, abadeak laguntza eman zien Elkartasun taldea sortzeko. Teorikoki talde parrokiak baten ere, taldearen helburu nagusia euskara

gazteen artean zabaltzea, eta euskal kultura bultzatzea zen. Don Nikolasek asko lagundu zigun elkartasun taldea sortzen. Garai hartan, Juan XXIII.aren Kontzilioa izan zen, eta horrek eraman zituen abadeak mezak euskaraz egitera. Urte batzuk geroago, 1962an, Don Nikolas gau-eskolak ematen hasi zen. Ondoren, ikastolaren sorreran ere parte hartu zuen. Baina, ikastola sortzeko ideia Elkartasun taldeko gazteek izan zuten, eta abadeei laguntza eskatu zieten ikastola aurrera eramateko. Hauek laguntza handia eman zuten ikastola aurrera atera zedin. Don Nikolasek ikastolaren proiektua babestu zuen; eta horretarako, San Antonio kapilla eskolak emateko utzi zuen.

—Oro har, zer-nolako ekarpena egin zion herriari Nikola Telleriak?

—Martiri bat izan zen, kartzelatik hiltzeko etorri baitzen. Baina, batik bat garai hartan zegoen hainbat behar bete zituen. esaterako, giza eskubideei buruz mintzatzen zen elizan. Orokorrean, herriari gauza asko egiten lagundu zion; gazteen artean, San Andres eliza altxatzen, gau-eskoletan, ikastolaren sorreran ere bai. Laguntza, beti eman zuen, hasieratik ere, dantza taldea sortzeko. Beraz, herria irabazi zuen, dotorea baten ere, umila eta langilea izan zen Don Nikolas. Egia esan, garai hartan abadeen laguntza barik ezer gutxi egin ahal izan genukeen. ○





**BETIKO**  
IKASTOLA

**Kalitatezko irakaskuntza euskalduna**

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez  
Tlf: 94 464 23 64  
94 464 33 07  
Fax: 94 464 22 05  
Helbidea: Artatza auzoa 84  
info@betikoikastola.net  
www.betikoikastola.net

**GAVRKO**




GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
Tf.94 460 70 84

[zinema]

## Gerra atzeko gerrak

**Amigoren** *El otro lado del espejo en la guerra secreta de Nicaragua* **zineman**



Filmaren kartela

**Angel Amigo** zuzendari eta produktore errenteriarren azken lana, *El otro lado del espejo en la guerra secreta de Nicaragua*, hil hasieran estreinatu zen.

Dokumental hau egiteko egitasmoa *Dragoi-ehiztaria* filmaren gidoia idazteko egindako ikerketan sortu zen; 80. hamarkada gatazkatsuan Erdialdeko Amerikan Kubako, Argentinako diktadura militarreko, KGBko eta CIAko inteligentzia zerbitzuek izandako paper edo eskuartzeaz, hain zuzen ere. 70. hamarkada amaieran Nazio Askapenerako Fronte Sandinistak (FNLS) Anastasio Somozauren urte luzeetako diktaturagaz amaitu zuen. Hurrengo urteetan, Sobie-

tar Batasunaren eta AEBen arteko gatazkaren, Gerra Hotzaren azkenetan, "gudu-zelaietako" bat bihurtu zuten Nikaragua. Gatazka hori kapitalismoaren eta sozialismoaren arteko norgehiagokaren adierazgarri ezagunenetakoa izan da. Alde biak bizikidetzatza bakesuan zebiltzan itxura emoten bazuen ere, Nikaragua, Honduras edota El

### «Gerra Hotzeko alde bien lehia Nikaraguan; lekukoaren ahotik»

Salvadorren gerra odoltsua zuten, eta horretan bakoitzaren inteligentzia zerbitzuek berebiziko zeregina izan zuten.

Testuinguru horretan kokatzen da Zurriola Moviesek ekoitzi, Barton Filmsek banatu, Alvaro Fernandez Gaviriak argazkia eta Frank Pinedak musika ipini dion 80 minutuko Amigoren dokumentala. Beraz, espia barik gerrak zelakoak izan zitezkeen islatu gura du lanak; eta Sobietar Batasunaren krisia ere irudikatzen du. Hori dana azaltzeko zertzeladak Nikolai Leonov (KGB), Fabian Escalante (Kubako Inteligentziakoa), Lenin Cernajunto (Inteligentzia sandinista) garaiko protagonistek eskaintzen dituzte; Eden Pastora, Boris Kolomiakov, Juan Jose Ubeda eta Vicente Chavezen lekukotzakaz batera. ○



[www.ukaldizkaria.biz](http://www.ukaldizkaria.biz)

## Blues bat MusikHerriari

**Agur esateko ordua** heldu zaiola iritzi dio diskoetxe herritar autogestionatuak

**MUSIKHERRIA**  
HERRI DISKOETXEA

**ataiak**

- >> BERRIAK
- >> MUSIKHERRIA
- >> TALDEAK
- >> KATALOGOA
- >> BANAKETA
- >> KONTAKTUA
- >> MYSPACE

**berriak**

MusikHerriak agur esan du  
2012-03-04  
Zazpi urteko ibibide oparoaren ostean, MusikHerria kolektiboak agur esatea erabaki du. [Info+]

Amaitu da Durangoko Azoka 2011  
2011-12-10  
Igaro da 2011ko Durangoko azoka. Urtean zehar ateratako 6 diskoetaz aparte 121Krew, Norte Apache eta Hutsaren diskoak aurkeztu ditu MusikHerriak. [Info+]

Ain\_1 taldeak "Musika kaxa" disko intimista kaleratu du  
2011-09-19  
Guztakoain Ain\_1 taldeko lagunek euren lehenengo lan luzea kaleratu berri dute: "Musika kaxa" (MH078). Estilo eta musika gustu ezberdinetatik edatzen duten pertsonak dira, eta bakoitzak bere ekarpena egin dio taldeari, musika kontzertuak baino, ikuskizun oso eta ezberdin bat landuz, leku biki eta goxotarako egokia. [Ain\_1] [Info+]

MusikHerria Kukutza gaztearekin bat  
2011-07-15  
Biboko Kukutza III gaztearekin desalajo eta eraketa mehatxuen aurrean, MusikHerriak bere elkartzasun eta solidarietasunarekin aurrera egin du. Era berean, hainbat...

**nobedadeak**

IZAKA IZANER

**entzun**

ESKENATOKIETAN NAHI DITUGU!

**berriak**

ESKENATOKIETAN NAHI DITUGU!

MusikHerrian 74 talde edo bakarlari pasa da eta 82 lan (CD, DVD eta liburu) plazaratu dute

**Jaiotze-jaialdia** ospatu zutela 6 urte bete ziren egunean, musika alorrean jardun duen Euskal Herri osoko proiektu parte-hartzaile eta autogestionatua izan den MusikHerria kolektiboak behin betiko agurra emon du. Ondorio horretara eroan dituzten adierazitako arrazoien artean, kapitalismoak eragindako krisia ezetzatu dute; hauetan oinarritu dira: "ez ditugu ideiak eta diskurtsoak berritu edo, ez dugu modu antolatuta batean egin (...). Zaila da kultur eredu merkantilista betikotu nahi dutenen aurrean kultur eredu berria sortzea, baina bide bakarra izan da; zaila da jendarte be-

rriaren alde egiten duten eragileen erreferentzia izan ez arren aurrera jarraitzea, baina bide bakarra izan da; Baina zailagoa da inertzian erori den kolektiboa berpiztea (...) Kontzeptu berriak kaleratzeko oztopo nagusia eragilea bera bihurtu da (...); ondo hasi zena ondo bukatzeko, MusikHerriako ki-deok, bide berriak lantzea pentsatu dugu". Halere, berresten jarraitzen dute: "Euskal Herriak kultur-erabat sakona behar du, (...) ziur gaude, bide horretan, MusikHerriak adreiluren bat jarri duela, baina argi dugu, kolektibo bezala, hustu egin dela". ○

Info+: [www.musikherria.org](http://www.musikherria.org)

## diskoak

**Leihoak**  
Lain  
Elkar



Villabonako taldeak bigarren lana kaleratu du *Leihoak* izenpean. Gazteek osatutako boskoteak aurrekoa baino rock disko "baikorragoa eta anitzagoa" sortu du oraingoan; halere, kantu akustikoei, punk-pop, edo folk eta pop elektronikoari ere zabaldu diezkieite leihoak lan honetan. Ordu erdi pasatxo irauten du eta 13 eurotan dago salgai.

**Ipar Haizea**  
Kepa Junkera  
HiriRecords



Trikitilari ezagunak Euskadiko Orkestra Sinfonikoagaz sortutako lan instrumental barria kaleratu du. Bere ibilbideko 9 kantu, besteak beste, oraintsuko "Hiri", "Señora Moça" zein "Madagaskar" kantak, eta hastapenetako "Bok Espok" eta "Gaztelugatxe ko Martxa" daude disko sinfoniko honetarako aukeratutakoetan.

**Lagunartean**  
Gaizka Peñafiel  
Baga-Biga



Bost urteren ostean argitaratu du kantautore bizkaitarrak bere bigarren diskoa, lehenengo lanetik urrutiko kokatu duena. Folkez bustitako pop-a da nagusi, eta gitarra eta trikiti soinuak nabarmen-tzen dira. 10 kanta batzen dituen lanerako lagunak alboan ditu, adib.: A. Asenjo, D. Nacares, Iñaki Aretxabaleta, Irtxe Mugire, Xabi Solano, Kepa Junkera, Asier Olazarre e.a.

## diskoa > Berango

Herriari gorazarre eginez, 14 kantuk eta horien partiturek osatutako *Berango* diskoa aurkeztu barri du Simon Otxandategi Dantza taldeak. Lanean batu dituzten abesti aipagarrien artean herriko ereserkia eta "Berangarra" agertzen dira. Simon Otxandategikoez gainera, beste hainbat elkartetako edo taldetako 200dik gora lagunek parte hartu du diskoan, besteak beste: Emakumeen Abesbatzak, Nagusien Abesbatzak, Berango-Merana ikastetxeko ikasleek eta Musika Eskolako Abesbatzak e.a. Kantuok abesteko aukera eskainiko dute, besteak beste, Santa Cecilia egunean. (UK 207. zenbakian diskoaren aurrerapena egin genuen, bertan duzu informazio gehiago).

## diskoa > Doctor Deseo

*Al amanecer seguir soñando* 13. diskoa martxoaren 13an, martitzena, aurkeztu zuen talde bilbotarrak. Ez diete sineskeriei kasurik egiten, eta ametsak egia bihurtu daitezkeela sinesten dutelako, gau ilunetan egiteaz gainera, goizaldeetan ere amets egiten jarraitzen gona bidatzen gaituzte. CD-liburuagaz datoz besapean; eta "amets egin, irudikatu eta sortu" da euren eskaintza. Francisen letraz gain, Bernardo Atxaga, Kirmen Uribe, Edorta Jimenez, edota Itziar Zigarenakaz sortu dituzte kantuak. Horrez gainera, margolarien lanak ere erantsi dituzte, besteak beste: Roscubas anaia, Jesus Mari Lazkano, Cristina Alfaro, Oier Ituarte, Fermin Moreno, Ismael Iglesias, La Lengua Ignacia e.a.

Info+: [www.baga-biga.com](http://www.baga-biga.com)

etorri eta ikusi!!

**MORIXA**  
Liburudenda

Alargorta 8 (Euskal Herria kaleko bua)  
Tf. 94 491 48 05  
Algorta

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Txartel hau  
aurkezten baduzu  
**%50eko**  
deskontua  
izango duzu zure  
autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean  
Tf. 94 430 15 00  
(15 eguneko epemuga)

**I**

**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45  
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[literatura]


## Euskal ipuinaren ikerlana

*Euskal literatura saila*-ko zortzigarrenak **euskal ipuingintza modernoa** du aztergai

**EHUren** *Euskal literatura saila* bilduma osatzera datorren *Eguno euskal ipuingintzaren historia* lana zuzendu du Alvaro Rabelli irakasle eta idazleak. Liburua atal nagusi bitan banatuta dago; lehenengoan, euskal ipuingintza garaikidea zertan den azaltzen duen sarrera luzea dago; euskal ipuingintzaren garapena, hastapenetatik gaur arte, ipuin teoriak genero berezi honetaz esandakoak e.a. jasotzen ditu. Bigarrenean, hainbat idazleren azken hamarkadetako (1983-2003) 21 ipuin esanguratsuenen azterketa-artikulu sorta irakur daiteke; besteak beste: J. Sarrionandia (*Narrazioak*); Joxemari Iturralde (*Dudular*); Koldo Izagirre (*Mendekuak*); Edorta Jimenez (*Atoiuntzia*); Juan Gartzia (*Itzalen itzal*); Pello Lizarralde (*Sargori*);

**«Generoaren garapenez gain, 21 ipuin edo lan aztertzen dira»**

Pako Aristi (*Auto-stopeko ipuinak*); Mikel Hernandez Abaitua (*Bazko arrautzak*); Arantxa Iturbe (*Lehenago zen berandu*); Anjel Lertxundi (*Piztiaren izena*); Xabier Montoia (*Gasteizko hondartzak*); B. Atxaga (*Obabakoak*); Harkaitz Cano (*Telefono kaiolatua*); Karlos Linazasoro (*Ez balego mundurik*); Iban Zaldua



EHUko Argitalpen Zerbitzuak plazaratu du

(*Traizioak*); Itziar Rozas (*Sartu, korrontea dabil*), Jokin Muñoz (*Bizia lo*) e.a.

Ravelliren esanetan, “*Euskal literaturan gaurko ipuin garaikidea genero berantiarra izan bada ere arin batean garatu da, hainbestearino ezen euskarazko narratibaren lorpen nagusietako batzuk genero honen eskutik etorri diren; Eleberria baino pluralago agertu da, bai ahotsetan, bai gaietan, bai estetikan*”. Rabellik zuzendutako lan honetan, besteak beste, hurrengoek parte hartu dute: Iñaki Aldekoa, Ur Apalategi, Miren Billelabeitia, Ibon Egaña, Jon Kortazar, Iratxe Retolaza eta Francisco Javier Rojo Cobos. ◊

liburuak



**Orbe auziaren ingurukoak**  
Iñaki Irasizabal Izagirre  
Elkar

Haur-Gazte Literatura (12-16 urte) sailako lan hau istorio honetan oinarritzen da: Joseba Orbe idazleak bere hurrengo liburua iragarri du; gai minbera ukitzen duela-eta polemika sortuko ei duena. Handik gitarra, mendi-bide batean agertuko da Orbe, modu lazgarrian hilda...



**Zeraldaren erraldoia**  
Tomi Ungerer  
Ikas

Haur literaturan ezaguna den Tomi Ungerer idazle-irudigileak 1970ean kaleratutako lana euskarara ekarri du Iparraldeko Ikas pedagogia zerbitzuak. Lexiko aldetik Hegoaldekoen-tzat oztopo txikiak ager litezke, erraz gaindigarriak. *Bidelpurrak*, haren beste lan aipagarria, euskaraz ere badago.

[kirola]

**Christian Rodriguez** > mendizale eta idazlea

“Itsu-talde bategaz igoko dugu 4.000 metroko mendi bat Guatemalan”



Christian Rodriguez Getxon bizi da duela urte bi

**Guatemalarra** da Christian Rodriguez mendizalea. Ehunka gailur zapaldu du Erdialdeko Amerikan eta Europan. Gainera, sari bi jaso barri du mendiagaz lotutako ipuin eta artikulu banari esker.

—Sari bi: bata mendiagaz lotutako ipuin-lehiaketa batean, bestea Pyrenaica aldizkariko artikulu batez.

—Mendizalea izan naiz beti eta artikuluak idatzi izan ditut: hasieran, argazki-kamerarik ez eta apunteak hartzen nituen, biderei eta sortzen zizkidan sentimenei buruz. Irakaslea naiz eta klasean ere kon-tatzen nizkien bidaiak ikasleei, eurek ere esaten zidaten idazteko. Behin, Beliceko mendirik garaienari buruz artikulu bat idazteko aukera sortu zitzaidan Poloniako mendi-aldizkari baterako, eta horrela hasi nintzen. Orain, aste biren buruan, sari bi eman didate, espero ez nituela.

—Mendi asko igo duzu eta gidari ibili zara, besteak beste, minusbalotasunen bat daukaten pertsonakaz, nolatan?

—Mexikotik Ekuadorrera ibili naiz, baita

Europan ere. Ez naiz profesionala, baina maila mendi gogorak igo ditut, baita 6.000 metrokoak ere. Ikasleak txangoak egiten nituen, urteerak klaseko gaiakaz lotuz: geografia, natura, e.a. Hainbat jendegaz urteerak egiten hasi eta, behin, itsu bategaz topo egin nuen. Elkarregaz urteera bat egin ostean, gaiari buruz ikastarora egin eta, handik tarte batera, txango bere-

**«Ikasleakaz mendira joan eta klaseko gaiakaz lotzen nituen urteerak»**

zia egin genuen: 40 joan ginen eta gehienek minusbalotasunen bat zeukaten; orain arte egin dudana gauzarik handiena. Hasieran zaila baina, behin teknikak ezagututa, orain lasaigo goaz, gozatzen, hitz egiten eta inguruan zer dagoen azaltzen.

—Eta zer da hurrena?

—Abenduan Guatemalara goaz urteera bi egitera: itsu-talde bategaz igoko dugu 4.000 metroko mendia, eta mugikortasuna murriztuta daukaten umeakaz beste mendi bat. Idazten ere jarraituko dut. ◊

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kizoi moda**



**350 m<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris, s.l.**



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 • ALGORTA

**Luciana Davies eta Miriam Herbon** > *Con vos* zerbitzua

## “Lanean sexu-erasoak pairatzen dituzten etxeko emakumeei lagunduko diegu”

Sortzen aholkularitzak, eta **Con Voz** eta **AMMIG** elkarteek abiatu dute *Con vos* doako zerbitzua. Lantokian sexu-erasoak pairatzen dituzten emakume migratzaileei laguntzeko sortu dute. **Luciana Daviesek (Con Voz eta AMMIG)** eta **Miriam Herbonek (Sortzen)** eman digute haren barri.

—Zergatik sortu duzue *Con vos*?

—2010ean ikerketa egin genuen eraso sexistei buruz: emakumeek zelan bizi dituzten, eurentzako zer den eraso, baita nola artatzen diren ere. Ikerketak agerian utzi zuen sexu-erasoak eta sexu-jazarpena pairatzen duela etxeetan lan egiten duten emakume migratzaile askok, baita zelako zailtasunak dituzten erasoak identifikatu eta egoera normala ez dela aitortzeko. Guk arreta eta laguntza emango diegu *Con vos* zerbitzuaren bitartez. Ez dago bideratuta bakarrik etxeko langile migratzaileei, gainontzeko langileak ere artatuko ditugu, baita bertokoak ere. Baina etxeko langileen artean dago kasu gehien eta arreta berezia ipiniko dugu horien gain. Gainera, sentsibilizatzen eta prebenitzen ahaleginguko gara, sexu-jazarpena pairatzen ari direla oraindino ez dakitenak: normaltasunez eta beldurrez bizi duten horri izena ipiniko diogu.

—Emakume migratzaileek normaltasunez bizi dute sexu-jazarpena lanean?

—Batzuk bai. Normaltasuna baino, lanean jasan behar duten gehigarritzat daukate. Lanerako beste aukerarik ez daukate, karga handia dutelako, ekonomikoki zein administratiboki: asko egoera irregularrean daude. Horregatik, uste dute jazarpena pasako dela edo agian euren burutazioak direla, eta errudun senti-



Harremanetarako: 900 828 890 eta convos@sortzen.org

tzen dira askotan. Ez daukate babes-sarerik, ingurukoak ere egoera beretsuan daude kargari dagokionez. Beraz, ez daukate eraso nori kontatu. Hortik abiatuta, babesa eskainiko die zerbitzuak: izan daiteke arazoa entzutea edota epaitegira deklaratzera laguntzea. Sentitzen dutena normala den edo ez jabetzeko, norbaite-

**“Gaur egun, gehienak emakume migratzaileak dira, laneko gehigarritzat bizi dute sexu-jazarpena eta oso zaila da argitara ateratzea”**

gaz hitz egin beharra daukate.

—Gainontzeko emakumeentzako ere zabalik dago zerbitzua?

—Bai, noski. Baina multzo horretakoengan eragin gura dugu, arazoa ikus dezaten: etxeko langileen artean, gaur egun, gehienak migratzaileak dira eta egoera ahulagoa bizi dute. Beraz, zailagoa da

ikustea badaukatela eskubiderik erasoak salatzeke. Arreta, babesa eta laguntzaz gainera, bestelako ekimenak ere garatuko ditugu: hitzaldiak, tailerrak, e.a.

—Zelan lortuko duzue eurek harremanetan ipintzea?

—Hori da erronkarik handiena. Era-kundeek baliabideak dauzkate sexu-er-

asoak salatzeke baina, emakume hauek, laneko gehigarri moduan bizi dituzte eta oso zaila da erasoak argitara ateratzea. Jakin behar dute zerbitzua euren egoeratik abiatzen dela eta emakume migratzaile-elkarteek sortu dutela. Erakundeetako zerbitzu sozialen bitartez ere helduko gara emakume horien gano. ○

**Fredi Paia**

## Oregitarrak

**Sarriten** ikusko zenduezan Algortako kaletati. Jaietan muserrange edo mozo-rrero jantzite, euren koloretako betaurreko handikez. Beti umore onen, beti baztarrak nahastaten, gaztetasune bizitza filosofi dala demostraten deude Oregitar ahiztek egunen-egunen.

Martitzen gauten, Albertonen, Ajurian egoten direz bertsolariri aituten, euskaririk ez badakie bere. Inor bertso erdin lotzen danen “*zte has cansau?*” itandu eta barre zantzoka errementaten direz. *Beti gazte* honeeri entrebiste ite akorda dat oingon, eta egi esan, atxinerik ez nendule horren ondo pasaten.

Dineude sasoi beteti gorako enbreni edade preguntate edukazino txarreko dala. Baie egi topate da geure beharra, eta sano gustora erantzun deuste biek bere. Gaztena Edurne da, txano jantzite ibiltzen dana, eta hemezortzi urte dekoz. Bere ahizte Libe da, ezkongai ondikarren eta mutil gazteri ganeti bisterik kentzen ez dotsena. Libek 18... (pi-pi-pi) urte dekozela esan deust.

Algortan gutako gehienok baizen urte gehiau badaroz bere, Bilbon jaioko direz Oregitarrak. Basortuko soldadun kuartelan aurren bizi zien txikerretan, eta zortzi neba-arrebatako gaztenak direz. Euren aite kazetari ixen zan Euzkadi agerkarin gerrate eurreti. Juan Cruz Oregi eukon uzena eta Durengoko seme zan. Euskeldune ixen zan baie Edurne eta Liberen amak ez iaun jakin, Bilboko Miribillako alabe ixen zan eta. Horregaiti ez euden geure berbete ikisi.

Oregitarren aite beti egoten ei zan kartzelen. *Euzkadi* agerkarin gobernun egozaren kontrako artikuluk idazten iauzen eta sarriten eroten euden Larrinagako kartzela. Bertati ekar euden, gerraosteko egun beten, etxera, hil eiten. Kartzelen bulerreti deretxon gatxa, tuberkulosi, koxi iaun eta



“Getxora txikerretarik etorten ziren, ude pasaten”

hak akaba iaun. Oregitarren amari maitasun kartak agintzen otsezan kartzeleti: “*Te quiero desde aquí hasta Ripa!*” iminten otsen, sano gure otsela esateko.

**«Algarroba asko jaten genduzen umetan, horregaiti ez garez handiagoak!»**

Ondo akordun dekez Oregitarrek Bilboko gerrako bonbardeok. Eurek ume bardingok zien eta Artxandara iyeten euden surterako egur bile. “*Estaba todo Artxanda lleno de chavales muertos!*” dinosku Libek. Onartzen badau bere gerrak ez dotsela traumarik itxi.

Getxora txikerretarik etorten ziren, ude pasaten. Akordun dekez Ereaga hondartzako “*La playa de la Arena*”, mimenazko kasetak. Bertan igeroten euden ude, euren ahizte nagosi zen Aintzanen begiradapen.

Pizti eta Landare Alkarteko sortzaile da Edurne. Bere txaletera kalen egozan txakurrek batzen hasi zen Pedro Zubiria Getxoko alkate zan sasoin.

Gerra baino arterao, Radio Bilbaon, “*La señorita Elena y Whisky*” uzeneko bikotek iten iaun saioko kanta-doinu bet bota dostee entrebiste akabateko:

*Eran dos chavalas Oregitarras, que aquí se presentaron /*

*La mar de ufanas*

*(poron, pon, pon)*

*Contestaron a duo y no sin razón*

*Que ellas eran dos niñas de corazón*

*(Poron, pon, pon)*

*¿Es esto la Caraba? Sí, señor*

*Me siento una chavala*

*Y soy algo mayor.*

*Me entran muchas ganas de jugar al futbol Al balón y al gol!*



[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitez.



**portu zaharra bar**

Portu Zaharra kalea 35  
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)  
Tf. 94 460 20 33  
portuzaharra@portuzaharra.com  
www.portuzaharra.com



**SOLAETXE**

Eguneko menua      **Jatetxea**      Karta  
Asteburuko menua      Oilasko erretegia

Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantesolaetxe.com



**La Triangu.**

Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



**berezi**

Hanburgesak      Ogitartekoak  
Sanwichak      Plater konbinatuak

SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO  
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)



**BODEGUILLA BUTRON**

Bidebitarte, 4 y 5 - Algorta (Getxo)  
94 430 01 74  
www.bodeguillabutron.com



**txakoli mota gane tx.**  
txakolina

Leioa-Unbe errepidea 34 (Akarlana Parkea) Gohierri-Erandio  
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



**UNAI TABERNA**

C/ Alangobarri n°3 C.P 48991 Getxo Telf. 94 466 16 61



**CAFETERIA COSMOPOLITA**

Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo  
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



**JAN-TOKI ORMAZTEBAL**

Eguneko menua  
Menu bereziak  
Karta  
Erreserbak:  
94 476 2389  
607 21 89 61  
LUTXANA-ERANDIO



**GURE ETXEA taberna**

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA  
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80



**Asador Cervecera BERANGO**

Oilasko erreak, indabak, txulettoa, arraina triangeluetan  
Menu bereziak enkarguz - Gabonetako Menu bereziak  
Pollo asado, txulettones, alubias, pescados a la brasa - Menus especiales por encargo - Menus especiales Navidad  
EGUSKIZA 32- 48940 BERANGO- Erreserbak 658 89 56 93- Tf. 94 668 13 34

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:

**94 491 13 37**  
**publiuk@aldizkaria.biz**

[pintxotan]

# Txanpiñoi-biribilkia

txanpiñoiak limoi erara bildurik



Txanpiñoi, limoi eta gazta konbinazio bikaina pintxoan

**Oraingoan** ederra bezain gozoa den pintxo horietakoa dakarkizugu Portu Zaharra tabernako barratik zuzenean, aldizkariko orriotara. Txanpiñoi-zalea izanez gero, zure neurrira egindako pintxo duzu honakoa; adi-adi irakurri ondorengo lerrook. Lehenengo eta bat, biribilkiaren oreka egingo dugu, horretarako, olio suta jarri eta tipula eta berakatz-ale bat txiki-txiki ebaki beharko dugu, ondoren olio berora botatzeko, horrela, tipula eta berakatz sueztituko ditugu. Horren ostean, txanpiñoiak garbitu eta moztuko ditugu berakatz eta tipulagaz nahasteko. Txanpiñoiak samur geratu eta ura lurrundu arte suta izango ditugu. Behin txanpiñoiak bere puntuan daudenean, limoi pare baten zuku

botako diogu. Bost minutu eta gero ogi birrindua eta sukaldatzeko esne-gaina gehituko ditugu, oreka loditu arte. Oreka behin lodituta itxaron behar dugu hoztu arte. Orduan, arto-opila hartu beharko dugu, eta bertan masa sartu beharko dugu biribiltzeko. Bi zotz jarriko ditugu opilaren erdialdean ez askatzeko. Horregaz batera opilaren muturrak barrurantz tolestuko ditugu. Azkenik, gure pintxoagaz amaitzeko opila erdibituko dugu, eta olio ugaritan zartaginean frijitu tuko dugu; olio zuku, eta gazta-urdira gainetik botako diogu. Prest txanpiñoiak gozatzeko! ○

**Osagaiak:** arto-opila, tipula, berakatz, txanpiñoiak, limoi-zuku, ogi-birrindua, esne-gaina eta gazta-urdira saltsa



**LAIAK Taberna**



**BASARTENA URDULIZ**

Teléfono: 946 761 128



**JUAN-MARI**  
Harategia eta txarkuteria

**ARTESANA**

LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25  
**AREETA**



**KONTXI ZUAZUBISKAR URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!  
Alangobarri 10, ALGORTA  
Tf. 94 491 02 93



**TXIBERRI edantokia frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
Tf. 94 676 07 15



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf. 94 430 64 93



**prentsa • aldizkariak**

GETXOKO KIROL PORTUA  
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

*María Jesús*

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10  
Tf. 94 491 08 21  
ALGORTA

HARTU TXANDA

**GOIZEAN**



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
Tf. 94 430 22 13      Tf. 94 460 02 88  
GETXO      ALGORTA

*Turikaldaí*

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURIMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87      (sarrera, Jata Mendia) T: 400 01 87  
48990 NEGURI      48990 GETXO

[horoskopoa]

**URA**



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Daborduko Aste Santuko prozesioa prestatzen zabilta? Zeini egingo diozu otoitz, galdutako auzien Birjinari? Horregaz jai daukazu, lanez gainezka dabil-eta.

**AITZURRA**



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Martitzena eta daborduko paga dana gastatuta? Ez duzu sekula ikasiko! Hemendik eta domekara badakizu, etxean lotu, edo ahateci ogi-apurrak jaten emon.

**GARIA**



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Azkenaldian talo asko jaten zabilta, feriaz feria, solomo ala txorizoagaz, bardin dizu. Ez diozu men egiten zure izateari, gari! Baina zelan egin duzu hori? Artoa lehiakide duzula!

**META**



(Irailak 17 urriak 16)  
Tximeleta mendian, lore baten gainean... Zer? Poz-pozik zabilta azken asteotan, enamoratuta ala? Udabarriko zein lorek poztzen dizu bihotza? Segi horrela eta gozatu ueña.

**OTSOA**



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Oraindino sagardotegiko ajeagaz ala? Normala, asteburu batean ere ez duzu hutsik egin, eta apirila osoa geratzen zaitu upel artean, ez zaude zaharregi horrela ibiltzeko?

**HOSTOA**



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Ohartu orduko iritsi da Aste Santua eta, berehala, maiatzeko azterketak. Ez utzi dana azkenerako eta baliatu oporrak lana aurreratzeko. Kasu egin behingoatik, ez zaitu damutuko!

**LASTOA**



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Udabarrigaz batera, lorak sortzeaz gainera, epeltzen hasi dela dirudi. Eta zu, udatar hori, azkar atera dituzu prakta laburrak. Hartu arnas eta ez egin korrika, bidea luzea da-eta!

**HAZIA**



(Urriak 17 azaroak 15)  
Urte hasieratik hona entrenatzen zabilta, lasterka, egunero. Oso ondo dago hori, baina Korrika datorren urtean izango da. Segi lasterka eta, agian, hasi orduko harrapatuko duzue...

**ADARRA**



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Aste Santuko oporrak batera sasoi lasai eta zoriotsua etorriko zaitu, lanak ondo amaituta. Leku exotikoren batera joango zara, konpainia exotikoagaz...

**EGUZKIA**



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Udabarra da, ezta? Eta lar eragin dizu, pozik baino pozago zabilta, loraz lora, lotu barik. Zorionak eta segi horrela, argiak eta eguraldi onak irauten bitartean.

**IRATZEA**




(Abuztuak 18 irailak 16)  
Lagunek txakur txiki bat oparitutako dizute, landatu barri duzun soloa zaintzeko. Baina gaixoa, beldurrez dabil han bakarrik. Zergatik ez diozu laguntxo bat erosten, kartatan jolas daitezten edo.

**NEGUA**



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Zein ederra etxera itzuli eta tximinia piztuta topatzea, ezta? Etxeko epeltasuna bezalakorik ez dago, batez ere bidaia gogorren ostean. Orain bai, lasai abes dezakezu: negua joan da-eta...



Kopiak  
**SALGAI**  
UK aldizkariaren  
bulegoan

Martikoena 16, 2. solairua **Algorta** (Getxo)  
Alangoko Osasun Zentroaren alboan



Uribe Kostako  
aldizkariaren  
ekoizpena




gaztetxoak > denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Bi edo hiru letra dagozkio erlojuko zenbaki bakoitzari. Ordu berbak osatzeko, orduekiko letrak idatz egizuz lehenengo, eta minutuekikoak gero. Zerrendako orduen arabera berbak ordenan ipini ostean, irakurriko duzu bakezale batek sekula entzun gura ez duen zerbait.

|                           |                      |
|---------------------------|----------------------|
| 1. Hirurak laurden gutxi. | <input type="text"/> |
| 2. Bostak.                | <input type="text"/> |
| 3. Ordu bata hoge gutxi.  | <input type="text"/> |
| 4. Hamarrak eta hamar.    | <input type="text"/> |
| 5. Zazpiak eta hoge.      | <input type="text"/> |
| 6. Seiak bost gutxi.      | <input type="text"/> |



gaztetxoak > bilatu eta irabazi

Non egiten da Maskarada?

- Araban
- Zuberoan
- Bizkaian

**La Gusana** liburudenda SARIA  
 Tellagorri plaza, Algorta  
 Tf. 94 491 14 12 **lagusana**

> Aurrekoaren erantzuna: Martxoaren 21ean  
 > Irabazlea: **Ane Barrena\***  
 \*deitu telefonoz: 94 491 13 37

ez horren gaztetxoak > non da?



Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurreko irudia duzu atal barri honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?

SARIA **Oinutsik** kontsulta podologikoa   
 Zubigane 4, Sopelana  
 Tf. 94 404 74 20  
 oinutsik@euskalnet.net

> Aurreko erantzuna: Matxitxakoko Guduaren 75. urteurrenagatik  
 > Irabazlea: **Artika Martin\***  
 \*deitu telefonoz: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbide elektronikora edo 94 491 13 37 telefonora deitu

DIONISIO LARENAK (GB) ATERATAKO ETA FCO. JAVIER URRETXUA "PAKIKO"K UTZITAKO ARGAZKIA



Bittor Egurrola

**ALGORTARRAK GERNIKAKO ABERRI EGUNEAN, 1964-03-29**

**Gernikako Arbola** (Zaharra)ren aurrean daude algortarrak, bertan, Juntetxean izan zelako Francoren kolpe militarren (1936-39) ondorengo Hegoaldeko Lehen Aherri Eguna, isilpekoa, debekatua baina bateratua. Guardia Zibilak Gernikara zihoazen errepide guztien sarrerak kontrolpean zituen eta ez zion inori pasatzen uzten. Eta hori gertatu zitzaizen gure lau lagunei Errigoitira heldu zirenean, ezin zutela aurrera egin. Orduan Pakikok, kotxeko gidariak, gordeta zeukan soldadutzako Osasun Alferrez txartela erakutsi eta bat-batean dena konpondu zen: guardia zibilak pasatzen utzi eta, gainera, "koadratu" (=militarki agurtu) egin zen bere aurrean. ○

**Ezkerretik eskuinera:** Peru Garate, Jon Amezaga (GB), Fco Javier Urretxua "Pakiko", Roman Cestona (GB).

**\*Oharra:** Argazkilaria semea Xabier Larena da, Burgosko prozesuan 1970eko abenduan heriotzara zigortua eta gero, "indultatuta", kartzelara zigortua.



# EUSKARA, MERKATARITZARA ZERBITZU-GUTUNA



## ERROTULUA IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK

Errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskara hutsez edo euskaraz eta gaztelaniaz jartzeko dirulaguntzak.

## ITZULPEN ZERBITZUA gehi@getxo.net

Urte osoan eta doan. Zure kartelak eta idatziak euskaraz edo ele bietara, zuk nahi duzun bezala.

## MAKETAZIO ZERBITZUA

Zeuk aukeratu kartela egiteko gehien gustatzen zaizun diseinua eta paper-tamaina. 10 paper-diseinu aukeran.

## “DENDAKETAN” EUSKARA IKASTARO LABURRAK

Bezeroei arreta euskaraz egiteko 60 orduko ikastaro laburrak.

## EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

Baldintzak betetzen dituenari Udalak matrikularen %100 itzuliko dio.

## MATERIAL SORTA INTERESGARRIA

Euskaraz edo ele bietan eta DOAN. “Zabalik/ Itxita”, “Merkealdia”, “Eskaintza bereziak”, “Erreklamazio-orriak eskuragarri”, “Gabonetako loteria”. “Udako ordutegia”, “Oporretan gaude”, inprimakiak (fakturak, ordainagiriak...).

## EUSKARA BIZI

HEMEN ERE EUSKARA BIZI leloa duten mahai-gainekoak, kartelak...

## HIZKUNTZA AHOLKULARITZA

### EGIN ZURE ESKAERA



94 415 22 52



gehi@getxo.net